60	ARTAXO	LONGIDA	NA-8206	L	0,19	0,47	0,28
61	ARTAXOA	ARTAXOA	NA-6020	L	12,81	13,84	1,03
62	ARTAXOA	ARTAXOA	NA-6030	L	7,48	7,90	0,42
63	ARTAXOA	ARTAXOA	NA-6030	L	8,15	8,41	0,26
64	ARTABIA	ALLIN	NA-718	ICF	7,25	7,41	0,16
65	ARTATZA	AMESKOABARRENA	NA-7186	L	1,39	1,44	0,05
66	ARTAZU	ARTAZU	NA-7040	L	3,53	3,84	0,31
67	ARTETA	OLLARAN	NA-7030	L	2,49	2,72	0,23
68	ARTIEDA	URRAULBEITI	NA-150	ICF	29,45	29,72	0,27
69	ASIAIN	OLTZA ZENDEA	NA-7010	L	10,95	11,54	0,59
70	ASTITZ	LARRAUN	NA-7500	L	10,63	10,77	0,14
71	ASTERAIN	ZIZUR	NA-1110	L	4,00	4,34	0,34
72	ASTERAIN	ZIZUR	NA-7014	L	0,00	0,10	0,10
73	ASTERAIN	ZIZUR	NA-7010	L	0,00	0,36	0,36
74	AURITZ	AURITZ	N-135	IG	43,91	45,23	1,32
75	AURIZBERRI	ERRO	N-135	IG	39,97	40,85	0,88
76	AUZA	ULTZAMA	NA-411	ICF	15,38	16,05	0,67
77	AUZA	ULTZAMA	NA-4116	L	0,00	0,14	0,14
78	AZAGRA	AZAGRA	NA-134	ICF	44,43	45,74	1,31
79	AZAGRA	AZAGRA	NA-8706	L	0,17	2,26	2,09
80	AZKETA	IGUZKITZA	NA-8405	L	0,00	0,34	0,34
81	BAKAIKU	BAKAIKU	NA-2410	L	23,31	23,96	0,65
82	BAÑOS DE FITERO	FITERO	NA-160	ICF	27,06	27,32	0,26
83	BARAIBAR	LARRAUN	NA-7510	L	3,42	3,71	0,29
84	BARASOAIN	BARASOAIN	NA-8601	L	0,08	0,60	0,52
85	BARBARIN	BARBARIN	NA-7400	L	3,85	4,12	0,27
86	BARILLAS	BARILLAS	NA-3040	L	1,32	1,71	0,39
87	BARILLAS	BARILLAS	NA-3041	L	1,85	2,03	0,18
88	BEINTZA-LABAIEN	BEINTZA-LABAIEN	NA-4040	L	11,27	12,47	1,20
89	BEIRE	BEIRE	NA-5301	L	3,57	3,68	0,11

ZENBAKIA	HERRIAREN IZENA	TOKI ENTITATEAK	ERREPIDEA	SAREA	K.P. HASIERA	K.P. BUKAERA	LUZERA (Km)
90	BEIRE	BEIRE	NA-5331	L	3,30	3,54	0,24
91	BERASKOAIN	BERASKOAIN	NA-7015	L	14,52	14,67	0,15
92	BELTZUNTZE	TXULAPAIN	NA-4102	L	0,87	1,39	0,52
93	BERA	BERA	NA-1310	L	0,00	1,04	1,04
94	BERA	BERA	NA-8304	L	0,19	1,48	1,29
95	BERA	BERA	NA-4410	L	0,00	0,30	0,30
96	BERBINTZANA	BERBINTZANA	NA-6120	L	6,62	7,30	0,68
97	BERBINTZANA	BERBINTZANA	NA-6130	L	4,14	4,57	0,43
98	BERRIOGOITI	BERRIOBEITI	NA-4100	L	1,71	2,03	0,32
99	BERRIOZAR	BERRIOZAR	N-240-A	IG	3,69	5,03	1,34
100	BERRIZAUN	IGANTZI	NA-1210	L	39,49	39,68	0,19
101	BERRIZAUN	IGANTZI	NA-4020	L	0,00	0,40	0,40
102	BETELU	BETELU	NA-1300	L	23,51	24,31	0,80
103	BETELU	BETELU	NA-7513	L	0,00	0,15	0,15
104	BIOTZARI	ERROMANTZATUA	NA-2200	L	4,13	4,41	0,28
105	BIZKARRETA-GERENDIAIN	ERRO	NA-8203	L	0,06	0,49	0,43
106	BOZATE	BAZTAN	NA-2600	L	1,16	1,74	0,58
107	BURGI	BURGI	NA-137	ICF	14,54	15,19	0,65
108	BURUTAIN	ANUE	NA-2510	L	0,49	0,73	0,24
109	CABANILLAS	CABANILLAS	NA-126	ICF	7,09	8,01	0,92
110	CABREDO	CABREDO	NA-743	ICF	3,87	4,68	0,81
111	CADREITA	CADREITA	NA-8711	L	0,28	1,60	1,32
112	ARRIZABALAGA	TEBAS-MURU ARTEDEERRETA	N-121	IG	14,42	15,26	0,84
113	CAPARROSO	CAPARROSO	NA-128	ICF	13,60	13,99	0,39
114	CAPARROSO	CAPARROSO	N-121	IG	56,89	57,43	0,54
115	CAPARROSO	CAPARROSO	NA-5501	L	0,00	0,78	0,78
116	CÁRCAR	CÁRCAR	NA-6230	L	0,53	0,99	0,46
117	ZARRAKAZTELU	ZARRAKAZTELU	NA-534	ICF	38,73	39,50	0,77
118	ZARRAKAZTELU	ZARRAKAZTELU	NA-128	ICF	30,97	32,13	1,16
119	ZARRAKAZTELU	ZARRAKAZTELU	NA-1240	L	18,00	18,45	0,45
120	CASCANTE	CASCANTE	N-121C	IG	9,01	10,18	1,17
121	CASCANTE	CASCANTE	NA-6711	L	0,00	0,43	0,43
122	CASCANTE	CASCANTE	NA-6900	L	0,00	1,41	1,41
123	CASCANTE	CASCANTE	NA-6830	L	0,00	0,93	0,93
124	KASEDA	KASEDA	NA-534	ICF	15,42	16,45	1,03
125	GAZTELUBERRI	GAZTELUBERRI	NA-2200	L	14,22	14,52	0,30
126	ZIA	ITZA	NA-4120	L	3,51	3,71	0,20
127	ZIAURRITZ	ODIETA	NA-4241	L	0,08	0,52	0,44
128	CINTRUENIGO	CINTRUENIGO	NA-160	ICF	15,99	17,49	1,50
129	ZIRAUKI	ZIRAUKI	NA-1110	L	17,07	17,45	0,38
130	ZIZUR TXIKIA	ZIZUR	NA-6000	L	1,07	1,79	0,72
131	ZIZUR TXIKIA	ZIZUR	NA-6053	L	0,36	1,24	0,88
132	CORELLA	CORELLA	NA-161	ICF	3,17	4,47	1,30
133	CORELLA	CORELLA	NA-6920	L	3,01	4,21	1,20
134	CORTES	CORTES	NA-5221	L	0,00	0,77	0,77
135	CORTES	CORTES	NA-5200	L	15,20	17,15	1,95
136	CORTES	CORTES	NA-5222	L	1,15	1,31	0,16
137	DANTXARINEA	URDAZUBI	N-121-B	IG	71,79	73,26	1,47
138	DESOIO	DESOIO	NA-7205	L	4,68	4,87	0,19
139	DEIKAZTELU	DEIKAZTELU	NA-6342	L	0,52	1,95	1,43
140	DOMENÜ	ERROMANTZATUA	NA-178	ICF	5,74	6,19	0,45
141	DONAMARIA	DONAMARIA	NA-4093	L	0,00	0,41	0,41
142	DONAMARIA	DONAMARIA	NA-4041	L	0,48	0,95	0,47
143	DONEZTEBE	DONEZTEBE	NA-170	ICF	30,79	32,49	1,7
144	DONEZTEBE	DONEZTEBE	NA-4040	L	0,00	0,21	0,21
145	DONEZTEBE	DONEZTEBE	NA-1210	L	24,60	24,68	0,08
146	ETXARRI	ETXARRI	NA-7110	L	3,46	3,72	0,26
147	EGOZKUE	ANUE	NA-2520	L	4,49	4,76	0,27
148	EGUESIBAR	EGUESIBAR	NA-2377	L	0,40	0,71	0,31
149	EKAI LONGIDA	LONGIDA	NA-2355	L	0,00	0,08	0,08
150	EKAI LONGIDA	LONGIDA	NA-1720	L	1,32	1,47	0,15
151	ELBETE	BAZTAN	NA-8307	L	5,11	5,45	0,34
152	ELKANO	EGUESIBAR	NA-2374	L	0,34	0,74	0,40
153	ELGORRIAGA	ELGORRIAGA	NA-170	ICF	30,00	30,39	0,39

ZENBAKIA	HERRIAREN IZENA	TOKI ENTITATEAK	ERREPIDEA	SAREA	K.P. HASIERA	K.P. BUKAERA	LUZERA (Km)
154	ELIZONDO	BAZTAN	NA-2596	L	0,00	0,39	0,39
155	ELIZONDO	BAZTAN	NA-8307	L	3,70	5,11	1,41
156	ERASO	IMOTZ	NA-4130	L	1,92	2,12	0,20
157	ERITZE	ATETZ	NA-4120	L	11,31	11,47	0,16
158	ERITZE	ITZA	NA-7012	L	0,03	0,39	0,36
159	ERRATZU	BAZTAN	NA-2600	L	2,77	3,71	0,94
160	ERRO	ERRO	N-135	IG	29,18	30,13	0,95
161	ERROTZ	ARAKIL	NA-7010	L	19,93	20,20	0,27
162	ESLABA	ESLABA	NA-8605	L	0,79	1,65	0,86
163	ESPARTZA ZARAITZU	ESPARTZA ZARAITZU	NA-178	ICF	40,18	40,49	0,31
164	ESPRONTZEDA	ESPRONTZEDA	NA-7205	L	7,88	8,31	0,43
165	ESPRONTZEDA	ESPRONTZEDA	NA-7200	L	5,92	6,65	0,73
166	LIZARRA	LIZARRA	NA-122	ICF	0,00	1,57	1,57
167	LIZARRA	LIZARRA	NA-120	ICF	1,09	1,65	0,56
168	LIZARRA	LIZARRA	NA-132-A	ICF	0,00	0,93	0,93
169	LIZARRA	LIZARRA	NA-1110	L	35,43	38,41	2,98
170	ETXALAR	ETXALAR	NA-4400	L	3,52	4,33	0,81
171	ETXALEKU	IMOTZ	NA-4140	L	3,29	3,44	0,15
172	ETXARREN	ARAKIL	NA-2410	L	2,26	2,62	0,36
173	ETXARRI ARANATZ	ETXARRI ARANATZ	NA-2410	L	19,85	20,39	0,54
174	ETXARRI ARANATZ	ETXARRI ARANATZ	NA-120	ICF	38,00	39,09	1,09
175	ETXAURI	ETXAURI	NA-700	ICF	12,40	13,19	0,79
176	EULATE	EULATE	NA-7130	L	5,40	6,24	0,84
177	EZKAROZE	EZKAROZE	NA-140	ICF	32,08	32,71	0,63
178	EZKAROZE	EZKAROZE	NA-178	ICF	44,47	44,74	0,27
179	EZKURRA	EZKURRA	NA-170	ICF	14,37	14,52	0,15
180	FALTZES	FALTZES	NA-6210	L	5,69	6,94	1,25
181	FITERO	FITERO	NA-160	ICF	22,10	23,77	1,67
182	FITERO	FITERO	NA-6900	L	19,50	19,59	0,09
183	FUNES	FUNES	NA-6630	L	2,34	3,53	1,19
184	FUNES	FUNES	NA-6631	L	0,00	0,14	0,14
185	FUNES	FUNES	NA-6632	L	0,00	0,45	0,45
186	FUSTIÑANA	FUSTIÑANA	NA-126	ICF	10,60	11,72	1,12
187	GALBARRA	LANA	NA-7292	L	0,00	0,13	0,13
188	GALBARRA	LANA	NA-7240	L	5,65	6,20	0,55
189	GALOZE	GALOZE	NA-2122	L	0,33	0,44	0,11
190	GARAIOA	GARAIOA	NA-140	ICF	11,71	12,07	0,36
191	GARDE	GARDE	NA-176	ICF	3,05	3,62	0,57
192	GARINOAIN	GARINOAIN	NA-8601	L	0,62	1,07	0,45
193	GARRALDA	GARRALDA	NA-140	ICF	5,88	6,43	0,55
194	GENEVILLA	GENEVILLA	NA-743	ICF	1,08	1,69	0,61
195	GERENDIAIN	ULTZAMA	NA-4230	L	0,27	0,40	0,13
196	GERENDIAIN	ULTZAMA	NA-4231	L	0,00	0,25	0,25
197	GOIZUETA	GOIZUETA	NA-4150	L	14,46	15,26	0,80
198	GOÑERRI	GOÑERRI	NA-7030	L	10,80	10,92	0,12
199	GORRONTZ-OLANO	ULTZAMA	NA-4117	L	1,53	1,76	0,23
200	GOROZIN	DEIERRI	NA-7008	L	2,51	2,98	0,47
201	GENBE	GESALATZ	NA-7020	L	12,08	12,27	0,19
202	GORZA	GORZA	NA-2130	L	0,00	0,16	0,16
203	GORZA	GORZA	NA-178	ICF	34,17	34,38	0,21
204	GIRGILLAO	GIRGILLAO	NA-7040	L	9,57	9,89	0,32
205	HIRIBERRI	ARAKIL	NA-2410	L	6,41	6,66	0,25
206	IBERO	OLTZA ZENDEA	NA-700	ICF	10,45	10,69	0,24
207	IBIRIKU	EGUESIBAR	NA-2377	L	1,51	1,75	0,24
208	IDOTZIN	IBARGOITI	NA-2420	L	12,37	12,67	0,30
209	IGARI	GORZA	NA-2130	L	2,69	2,89	0,20
210	IGUZKITZA	IGUZKITZA	NA-7453	L	1,35	1,69	0,34
211	IHABAR	ARAKIL	NA-2410	L	8,23	8,59	0,36
212	IHABEN	BASABURUA	NA-4140	L	0,57	0,87	0,30
213	IMIRIZALDU	URRAULGOITI	NA-2100	L	9,51	9,69	0,18
214	IRAGI	ESTERIBAR	NA-2520	L	9,76	9,98	0,22
215	IRAIZOTZ	ULTZAMA	NA-4230	L	2,93	3,25	0,32
216	IRURITA	BAZTAN	NA-8307	L	1,44	2,16	0,72
217	IRURITA	BAZTAN	NA-2540	L	9,05	9,15	0,10

ZENBAKIA	HERRIAREN IZENA	TOKI ENTITATEAK	ERREPIDEA	SAREA	K.P. HASIERA	K.P. BUKAERA	LUZERA (Km)
218	IRURITA	BAZTAN	NA-4404	L	0,00	0,24	0,24
219	IRURITA	BAZTAN	NA-1740	L	0,00	0,73	0,73
220	IRUROZKI	URRAULGOITI	NA-2100	L	10,88	11,14	0,26
221	IRURTZUN	IRURTZUN	NA-7010	L	22,32	22,89	0,57
222	IRURTZUN	IRURTZUN	N-240-A	IG	19,87	20,83	0,96
223	IRURTZUN	IRURTZUN	NA-2410	L	0,00	0,42	0,42
224	IZABA	IZABA	NA-137	ICF	32,89	33,48	0,59
225	ITUREN	ITUREN	NA-170	ICF	27,67	28,34	0,67
226	ITURMENDI	ITURMENDI	NA-8504	L	0,23	0,72	0,49
227	ITZALTZU	ITZALTZU	NA-140	ICF	37,66	38,08	0,42
228	IZKUE	OLTZA ZENDEA	NA-7004	L	0,71	1,08	0,37
229	IZURDIAGA	ARAKIL	NA-7010	L	20,85	21,82	0,97
230	IZURTZU	GESALATZ	NA-700	ICF	22,43	22,54	0,11
231	JAUNTSARATS	BASABURUA	NA-4112	L	0,00	0,17	0,17
232	JAUNTSARATS	BASABURUA	NA-411	ICF	7,04	7,51	0,47
233	JAURRIETA	JAURRIETA	NA-140	ICF	26,22	27,07	0,85
234	LAKAR	DEIERRI	NA-7319	L	0,10	0,35	0,25
235	LAKUNTZA	LAKUNTZA	NA-8503	L	0,21	1,06	0,85
236	LAPOBLACION	LAPOBLACION	NA-7211	L	0,04	0,40	0,36
237	LARRAGA	LARRAGA	NA-6130	L	0,00	0,92	0,92
238	LARRAGA	LARRAGA	NA-601	ICF	31,58	32,64	1,06
239	LARRAINTZAR	ULTZAMA	NA-411	ICF	17,24	17,87	0,63
240	LARRAINTZAR	ULTZAMA	NA-4161	L	0,00	0,68	0,68
241	LARRAGOA	LARRAGOA	NA-7130	L	10,06	10,58	0,52
242	LARRAIOTZ	TXULAPAIN	NA-4220	L	2,65	2,71	0,06
243	LARRION	ALLIN	NA-718	ICF	3,86	4,45	0,59
244	LARRION	ALLIN	NA-7138	L	0,05	0,54	0,49
245	LATASA	IMOTZ	NA-4130	L	0,13	0,34	0,21
246	ELIZAGORRIA	ELIZAGORRIA	NA-8406	L	0,00	0,69	0,69
247	ELIZAGORRIA	ELIZAGORRIA	NA-6330	L	0,66	1,12	0,46
248	LEGARDA	LEGARDA	NA-1110	L	10,66	10,80	0,14
249	LEGARIA	LEGARIA	NA-6340	L	17,11	17,55	0,44
250	LEITZA	LEITZA	NA-1700	L	11,24	11,73	0,49
251	LEITZA	LEITZA	NA-170	ICF	2,56	3,68	1,12
252	LEKUNBERRI	LEKUNBERRI	NA-7510	L	0,00	0,42	0,42
253	LEKUNBERRI	LEKUNBERRI	NA-1300	L	13,43	14,49	1,06
254	LEKUNBERRI	LEKUNBERRI	NA-4063	L	0,00	0,32	0,32
255	LEKUNBERRI	LEKUNBERRI	NA-7561	L	0,00	0,24	0,24
256	LERGA	LERGA	NA-132	ICF	52,81	53,30	0,49
257	LERIN	LERIN	NA-6114	L	0,00	0,23	0,23
258	LESAKA	LESAKA	NA-4000	L	1,77	3,39	1,62
259	LEZAUN	LEZAUN	NA-7330	L	27,86	28,20	0,34
260	LEDEA	LEDEA	NA-2420	L	32,00	32,86	0,86
261	LIZARRAGA	ERGOIENA	NA-120	ICF	33,99	34,43	0,44
262	LIZARRAGABENGOA	ETXARRI ARANATZ	NA-7520	L	7,87	7,97	0,10
263	LIZASO	ULTZAMA	NA-411	ICF	18,74	19,28	0,54
264	LIZASO	ULTZAMA	NA-4117	L	0,00	0,23	0,23
265	LIZASOAIN	OLTZA ZENDEA	NA-7061	L	0,62	0,74	0,12
266	LIZOAIN	LIZOAIN	NA-2325	L	1,52	1,68	0,16
267	LODOSA	LODOSA	NA-6221	L	0,00	0,39	0,39
268	LODOSA	LODOSA	NA-8716	L	0,47	2,61	2,14
269	LODOSA	LODOSA	NA-6220	L	0,00	0,81	0,81
270	LORKA	DEIERRI	NA-8408	L	0,12	0,69	0,57
271	LORKA	DEIERRI	NA-1110	L	29,17	29,62	0,45
272	LOS ARCOS	LOS ARCOS	NA-129	ICF	12,03	13,42	1,39
273	LOS ARCOS	LOS ARCOS	NA-8401	L	1,14	1,79	0,65
274	LOS ARCOS	LOS ARCOS	NA-8401	L	1,89	2,42	0,53
275	IRUNBERRI	IRUNBERRI	NA-178	ICF	0,00	0,61	0,61
276	IRUNBERRI	IRUNBERRI	NA-8205	L	0,00	0,90	0,90
277	IRUNBERRI	IRUNBERRI	NA-150	ICF	36,43	37,05	0,62
278	LUKIN	LUKIN	NA-7400	L	4,97	5,39	0,42
279	LUZAIDE	LUZAIDE	N-135	IG	62,93	63,93	1,00
280	MADOTZ	LARRAUN	NA-7500	L	6,43	6,51	0,08
281	MAÑERU	MAÑERU	NA-8409	L	0,10	0,63	0,53

ZENBAKIA	HERRIAREN IZENA	TOKI ENTITATEAK	ERREPIDEA	SAREA	K.P. HASIERA	K.P. BUKAERA	LUZERA (Km)
282	MARAÑÓN	MARAÑÓN	NA-743	ICF	6,44	6,90	0,46
283	MARKALAIN	TXULAPAIN	NA-4100	L	6,25	6,50	0,25
284	MARTZILLA	MARTZILLA	NA-6630	L	8,21	8,45	0,24
285	MARTZILLA	MARTZILLA	NA-128	ICF	3,86	4,84	0,98
286	MEANO	LAPOBLACIÓN	NA-7210	L	2,68	2,99	0,31
287	MEANO	LAPOBLACIÓN	NA-7300	L	0,00	0,35	0,35
288	MÉLIDA	MÉLIDA	NA-128	ICF	22,42	23,47	1,05
289	MENDABIA	MENDABIA	NA-8411	L	0,95	2,68	1,73
290	MENDAIZA	MENDAIZA	NA-129	ICF	2,89	3,11	0,22
291	MENDIGORRIA	MENDIGORRIA	NA-601	ICF	22,24	22,73	0,49
292	MENDIGORRIA	MENDIGORRIA	NA-6030	L	0,00	0,23	0,23
293	MILAGRO	MILAGRO	NA-8713	L	1,51	3,46	1,95
294	MIRAFUENTES	MIRAFUENTES	NA-7410	L	10,71	11,19	0,48
295	ELO	ELO	NA-2420	L	8,67	9,20	0,53
296	MONTEAGUDO	MONTEAGUDO	N-121C	IG	13,34	14,33	0,99
297	MORENTIN	MORENTIN	NA-6115	L	1,28	1,65	0,37
298	MUES	MUES	NA-129	ICF	7,26	7,95	0,69
299	MUETZ	GESALATZ	NA-700	ICF	30,43	30,86	0,43
300	MUGAIRI	BAZTAN	NA-8303	L	0,00	0,70	0,70
301	MUGAIRI	BAZTAN	NA-1210	L	19,91	20,21	0,30
302	MUNIAIN IGUZKITZA	ABERIN	NA-6115	L	0,12	0,80	0,68
303	MURCHANTE	MURCHANTE	NA-6840	L	2,83	4,25	1,42
304	MURCHANTE	MURCHANTE	NA-6711	L	3,55	3,70	0,15
305	MURCHANTE	MURCHANTE	NA-6710	L	0,00	0,35	0,35
306	MURIETA	MURIETA	NA-7451	L	0,00	0,10	0,10
307	MURIETA	MURIETA	NA-7455	L	0,00	0,19	0,19
308	MURIETA	MURIETA	NA-132-A	ICF	11,13	11,72	0,59
309	MURELU LONGIDA	LONGIDA	NA-150	ICF	22,30	22,57	0,27
310	MURILLO EL FRUTO	MURILLO EL FRUTO	NA-8604	L	0,16	1,36	1,20
311	MURILLO EL FRUTO	MURILLO EL FRUTO	NA-5311	L	20,66	20,84	0,18
312	MURU ASTERAIN	ZIZUR	NA-7010	L	1,04	1,41	0,37
313	MURUGARREN	DEIERRI	NA-700	ICF	41,08	41,21	0,13
314	MURUZABAL	MURUZABAL	NA-6016	L	4,87	5,00	0,13
315	MURUZABAL	MURUZABAL	NA-6062	L	1,57	1,72	0,15
316	MUZKI	GESALATZ	NA-7040	L	15,03	15,19	0,16
317	NARBARTE	BERTIZARANA	NA-1210	L	21,47	21,89	0,42
318	NABASKOZE	NABASKOZE	NA-214	ICF	0,34	0,69	0,35
319	OTSAGABIA	OTSAGABIA	NA-2012	L	0,00	0,17	0,17
320	OTSAGABIA	OTSAGABIA	NA-140	ICF	34,08	34,88	0,80
321	OKO	OKO	NA-6340	L	15,89	16,27	0,38
322	ODERITZ	LARRAUN	NA-7500	L	8,17	8,35	0,18
323	OIEREGI	BERTIZARANA	NA-1210	L	20,25	20,57	0,32
324	OLA	BASABURUA	NA-4114	L	3,08	3,29	0,21
325	OLAGUE	ANUE	NA-8104	L	0,30	0,94	0,64
326	OLALDEA	OROTZ-BETELU	NA-2040	L	12,18	12,88	0,70
327	OLABE	OLAIBAR	N-121-A	IG	10,49	10,65	0,16
328	OLATZ	EGUESIBAR	NA-8107	L	0,37	0,95	0,58
329	OLAZTI	OLAZTI	NA-718	ICF	38,28	38,70	0,42
330	OLAZTI	OLAZTI	NA-2410	L	32,63	34,28	1,65
331	OLEXOA	OLEXOA	NA-8413	L	0,03	0,28	0,25
332	ERRIBERRI	ERRIBERRI	NA-5300	L	9,16	9,75	0,59
333	ERRIBERRI	ERRIBERRI	NA-6620	L	0,00	0,32	0,32
334	ERRIBERRI	ERRIBERRI	NA-5301	L	0,00	0,82	0,82
335	OLLAKARIZKETA	TXULAPAIN	NA-4100	L	4,24	4,62	0,38
336	OLETA	LEOTZ	NA-5110	L	9,99	10,23	0,24
337	OLLOBARREN	METAUTEN	NA-7310	L	4,26	4,40	0,14
338	ORBAITZETA	ORBAITZETA	NA-2030	L	6,22	6,57	0,35
339	ORBARA	ORBARA	NA-2030	L	4,23	4,30	0,07
340	OROKIETA-ERBITI	BASABURUA	NA-4114	L	1,14	1,30	0,16
341	ORONDRITZ	ERRO	NA-2332	L	0,96	1,20	0,24
342	ORONTZE	ORONTZE	NA-178	ICF	42,00	42,28	0,28
343	ORORBIA	OLTZA ZENDEA	NA-700	ICF	7,54	8,07	0,53
344	ORORBIA	OLTZA ZENDEA	NA-7010	L	7,08	7,76	0,68
345	OROTZ-BETELU	OROTZ-BETELU	NA-2040	L	9,65	10,13	0,48

ZENBAKIA	HERRIAREN IZENA	TOKI ENTITATEAK	ERREPIDEA	SAREA	K.P. HASIERA	K.P. BUKAERA	LUZERA (Km)
346	OROTZ-BETELU	OROTZ-BETELU	NA-2045	L	0,00	0,19	0,19
347	ORREAGA	ORREAGA	N-135	IG	47,01	47,22	0,21
348	ORRIO	EZKABARTE	NA-4210	L	3,75	3,96	0,21
349	OSKOTZ	IMOTZ	NA-4130	L	5,50	5,64	0,14
350	OSTITZ	ODIETA	NA-8109	L	0,84	1,08	0,24
351	OSTITZ	ODIETA	NA-4240	L	0,00	0,15	0,15
352	PATERNAIN	ZIZUR	NA-7015	L	4,74	5,04	0,30
353	AZKOIEN	AZKOIEN	NA-8701	L	0,28	2,26	1,98
354	AZKOIEN	AZKOIEN	NA-6630	L	0,00	0,36	0,36
355	AZKOIEN	AZKOIEN	NA-8702	L	0,00	1,02	1,02
356	PITILLAS	PITILLAS	NA-5330	L	1,58	2,10	0,52
357	PITILLAS	PITILLAS	NA-5331	L	0,00	0,28	0,28
358	GARES	GARES	NA-1110	L	15,96	16,96	1,00
359	GARES	GARES	NA-6064	L	3,71	4,01	0,30
360	RIBAFORADA	RIBAFORADA	NA-5200	L	1,28	2,45	1,17
361	ERREZU	DEIERRI	NA-7140	L	0,55	0,93	0,38
362	ERRIPA	ODIETA	NA-4232	L	0,00	0,22	0,22
363	ERRIPA	ODIETA	NA-411	ICF	24,72	24,86	0,14
364	ARRIPODAS	URRAULBEITI	NA-150	ICF	32,81	33,08	0,27
365	ERRONKARI	ERRONKARI	NA-137	ICF	25,86	26,33	0,47
366	ZARE	ZARE	NA-5140	L	0,52	0,86	0,34
367	SALDIAS	SALDIAS	NA-4114	L	14,15	14,19	0,04
368	SALDIAS	SALDIAS	NA-4040	L	17,16	17,28	0,12
369	SALDIAS	SALDIAS	NA-4029	L	2,41	2,44	0,03
370	JAITZ	JAITZ	NA-700	ICF	25,31	25,59	0,28
371	GETZE GALAR	GALAR	NA-6008	L	0,55	1,04	0,49
372	SAN ADRIÁN	SAN ADRIÁN	NA-8710	L	0,08	1,43	1,35
373	SAN ADRIÁN	SAN ADRIÁN	NA-8709	L	0,00	0,45	0,45
374	SAN MARTIN AMESKOA	AMESKOABARRENA	NA-7130	L	1,69	2,31	0,62
375	SAN MARTIN UNX	SAN MARTIN UNX	NA-5300	L	0,00	0,32	0,32
376	SAN MARTIN UNX	SAN MARTIN UNX	NA-132	ICF	43,95	44,98	1,03
377	SANTSOL	SANTSOL	NA-7205	L	0,01	0,22	0,21
378	SANTSOL	SANTSOL	NA-1110	L	62,53	62,91	0,38
379	SANTAKARA	SANTAKARA	NA-1240	L	8,04	9,00	0,96
380	SANTAKARA	SANTAKARA	NA-5330	L	9,71	10,16	0,45
381	SANTAKARA	SANTAKARA	NA-5330	L	10,46	10,50	0,04
382	SARTZE	SARTZE	NA-178	ICF	38,04	38,22	0,18
383	SORAUREN	EZKABARTE	NA-8101	L	0,22	1,01	0,79
384	SUNBILLA	SUNBILLA	NA-1210	L	27,75	28,19	0,44
385	TABAR	URRAULBEITI	NA-2400	L	18,08	18,18	0,10
386	TAFALLA	TAFALLA	NA-6030	L	17,97	18,77	0,80
387	TAFALLA	TAFALLA	NA-132	ICF	32,70	34,96	2,26
388	TAFALLA	TAFALLA	NA-8607	L	3,30	4,75	1,45
389	TAFALLA	TAFALLA	NA-8607	L	4,87	5,81	0,94
390	TEBAS	TEBAS-MURU ARTEDEERRETA	N-121	IG	13,65	14,42	0,77
391	TORRES DEL RÍO	TORRES DEL RÍO	NA-1110	L	63,44	63,75	0,31
392	TORRES DEL RÍO	TORRES DEL RÍO	NA-7251	L	0,00	0,05	0,05
393	TULEBRAS	TULEBRAS	N-121C	IG	11,46	11,88	0,42
394	TULEBRAS	TULEBRAS	NA-3040	L	0,00	0,16	0,16
395	UBANI	ZABALTZA	NA-7015	L	8,98	9,19	0,21
396	UDABE	BASABURUA	NA-411	ICF	2,78	2,95	0,17
397	UHARTE ARAKIL	UHARTE ARAKIL	NA-7517	L	0,15	1,11	0,96
398	UITZI	LARRAUN	NA-4011	L	0,00	0,39	0,39
399	UITZI	LARRAUN	NA-1700	L	4,03	4,38	0,35
400	ULTZURRUN	OLLARAN	NA-7031	L	0,79	0,89	0,10
401	UNTZU	TXULAPAIN	NA-4210	L	6,51	6,65	0,14
402	URBIOLA	IGUZKITZA	NA-7400	L	5,68	5,76	0,08
403	URBIOLA	IGUZKITZA	NA-8410	L	0,05	0,34	0,29
404	URBIOLA	IGUZKITZA	NA-1110	L	46,33	46,54	0,21
405	URDAITZ	ESTERIBAR	NA-8202	L	0,12	0,52	0,40
406	URDIAIN	URDIAIN	NA-2410	L	26,22	26,50	0,28
407	URITZ	ARTZIBAR	NA-1720	L	15,88	16,10	0,22
408	URRITZOLA-GALAIN	ULTZAMA	NA-4242	L	1,62	1,65	0,03
409	URROTZ	URROTZ	NA-4040	L	6,35	6,37	0,02

ZENBAKIA	HERRIAREN IZENA	TOKI ENTITATEAK	ERREPIDEA	SAREA	K.P. HASIERA	K.P. BUKAERA	LUZERA (Km)
410	URROTZ-HIRIA	URROTZ-HIRIA	NA-8103	L	0,36	0,82	0,46
411	URTASUN	ESTERIBAR	NA-138	ICF	25,17	25,37	0,20
412	URTASUN	ESTERIBAR	NA-2520	L	13,21	13,30	0,09
413	URZAINKI	URZAINKI	NA-137	ICF	28,86	29,03	0,17
414	USKARTZE	GALOZE	NA-2121	L	0,03	0,32	0,29
415	USTAIZE	NABASKOZE	NA-2124	L	0,35	0,45	0,10
416	UTERGA	UTERGA	NA-6016	L	2,33	2,78	0,45
417	UZTARROZE	UZTARROZE	NA-140	ICF	53,16	53,94	0,78
418	UZTEGI	ARAITZ	NA-7512	L	2,03	2,32	0,29
419	VALTIERRA	VALTIERRA	NA-8712	L	4,64	6,98	2,34
420	VIANA	VIANA	NA-7230	L	0,27	0,95	0,68
421	VIANA	VIANA	N-111	IG	79,70	80,63	0,93
422	VIANA	VIANA	NA-1110	L	74,29	74,55	0,26
423	VIANA	VIANA	NA-8407	L	0,00	0,49	0,49
424	BIDAURRE	GESALATZ	NA-7020	L	11,10	11,29	0,19
425	ALESBES	ALESBES	NA-660	ICF	11,08	11,76	0,68
426	VILLATUERTA	VILLATUERTA	NA-1110	L	32,88	34,10	1,22
427	BILLABETA	LONGIDA	NA-150	ICF	18,42	18,57	0,15
428	ESA	ESA	NA-2420	L	38,61	39,48	0,87
429	ESA	ESA	NA-5410	L	12,14	12,20	0,06
430	ZABAL	DEIERRI	NA-700	ICF	39,45	39,80	0,35
431	ZABALDIKA	ESTERIBAR	N-135	IG	9,35	9,52	0,17
432	ZANDUETA	ARTZIBAR	NA-1720	L	15,26	15,34	0,08
433	ZENOTZ	ULTZAMA	NA-4230	L	0,88	0,97	0,09
434	ZIZUR NAGUSIA	ZIZUR NAGUSIA	NA-8108	L	0,00	0,88	0,88
435	ZIZUR NAGUSIA	ZIZUR NAGUSIA	NA-6053	L	0,00	0,36	0,36
436	ZIZUR NAGUSIA	ZIZUR NAGUSIA	NA-7015	L	0,00	1,72	1,72
437	ZUBIELKI	ALLIN	NA-132-A	ICF	2,93	3,35	0,42
438	ZUBIRI	ESTERIBAR	NA-138	ICF	0,00	0,18	0,18
439	ZUBIRI	ESTERIBAR	N-135	IG	19,78	21,20	1,42
440	ZUDAIRI	AMESKOABARRENA	NA-718	ICF	14,47	14,77	0,30
441	ZURIAIN	ESTERIBAR	N-135	IG	12,25	12,57	0,32
442	ZURUKUAIN	DEIERRI	NA-7008	L	3,63	3,76	0,13

ZEHarBIDEAK, GUztIRA	ZEHarBIDEAK DAUZKATEN HERRIAK, GUztIRA	ZEHarBIDEEN LUZERA, GUztIRA (Km)
442	313	235,68

SARE MOTA	Km
INTERES OROKORREKO ERREPIDEEN SAREA	16,06
FORU KOMUNITATEKO INTERESEKO ERREPIDEEN SAREA	58,94
TOKIKO SAREA	160,68
ZEHarBIDEEN LUZERA, GUztIRA (Km)	235,68

Azkenik, aipatu ebazpenean izendatutako bi izangairi borondatezko eszedentzia eman zaie, lanpostuaz jabetzen diren egunetik aurrerako ondorioekin, une horretan beste administrazio publiko batean zerbitzu ematen egoteagatik, eta beste bosti borondatezko eszedentziako administrazio egoera aitortu zaie, lanpostuaz jabetzen diren egunetik aurrerako ondorioekin, administrazio berean lanpostu finko batean zerbitzu ematen jarraitzea hautatzeagatik.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen otsailaren 7ko 7/2011 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ondokoa ezartzen da (2011ko 37. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, otsailaren 23koa): "2010eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartzeko deialdietako izangaiei, funtzionario edo lan-kontratudun finko bihurtu eta lanpostuan batere aritu gabe, beraiek eskatuta borondatezko eszedentzia ematen bazaie jabetza hartzen duten egunetik bertatik, indarra duen araudian aurreikusitako kasuetan, dagozkien lanpostu hutsak oposizioa gainditu zuten izangaien zerrendan hurrengo direnekin beteko dira".

Hori aplikatzeko, bigarren izendapen osagarri bat argitaratu zen 2012ko 112. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 13an, honako izangai hauekin: Alfonso Carlos Orzanco Ojer, María Reyes Martínez Alegría, Miren Nekane Erdocia Zufiaurre, Javier Ansó Carlos, José Luis Felipe Torrado, Cristian Martínez Esteban eta Armando Liaño Sola jaun-andreak, denak igoera txandakoak, gaindituen zerrendako hurrengo izangaiak baitziren.

José Luis Felipe Torrado jauna kenduta, izendapen proposamenean sartutako gainerako izangaiak eskatutako ziurtagiriak behar den moduan aurkeztu dituzte, beraz, bidezko da horien izendapena egitea eta lanpostu hutsak esleitzea.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionario hauek izendatzea, eskolazain lanpostuan aritzeko: Alfonso Carlos Orzanco Ojer, María Reyes Martínez Alegría, Miren Nekane Erdocia Zufiaurre, Javier Ansó Carlos, Cristian Martínez Esteban eta Armando Liaño Sola jaun-andreak, denak igoera txandakoak.

2. Lanpostu hutsak honela esleitzea:

–Alfonso Carlos Orzanco Ojer jaunari, 35745 lanpostua, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, Iruñean aritzeko Dantza Eskolan.

–María Reyes Martínez Alegría andreari, 37442 lanpostua, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, Tafallan aritzeko Tafallako BHI Politeknikoan.

–Miren Nekane Erdocia Zufiaurre andreari, 34649 lanpostua, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, Zudairin aritzeko Las Amescoas IPn, ikastetxeko etxebizitzan bizitzera beharturik.

–Javier Ansó Carlos jaunari, 37444 lanpostua, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, Tuteran aritzeko Valle del Ebro BHI.

–Cristian Martínez Esteban jaunari, 35643 lanpostua, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, Tuteran aritzeko Valle del Ebro BHI.

–Armando Liaño Sola jaunari 35832 lanpostua, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, Tuteran aritzeko ETI IBPn.

Izendatuek 2012ko irailaren 12an hartu beharko dute lanpostuaren jabetza, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuan. Egun horretan ez baldin badute lanpostuaren jabetza hartzen, Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izateko eskubide guztiak galduko dituzte, behar bezala arrazoitutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

3. Ebazpen hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzura eta Baliabide Ekonomikoen Zerbitzura eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Kudeaketako Zerbitzura, Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzura eta Gizarte Prestazioen Zerbitzura, eta interesdunei jakinaraztea. Halaber, interesdunei adierazten zaie gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal dutela Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hila beteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoarekin bat.

4. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 20an.–Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguílaz Gogorza.

F121491

2177/2012 EBAZPENA, abuztuaren 27koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Jesús Flamarique Zaratiegui jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Extranet eta Intranet Ataleko buru izendatzen duena, merezimendu lehiaketa eginda.

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak ekainaren 7an emandako 1553/2010 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 86 atal, bulego eta unitate parekatuen burutza merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zen. Horien artean, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Extranet eta Intranet Atalarena zegoen. Aipatutako deialdia 2010eko 87. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 19an.

Urtarrilaren 17ko 103/2011 Ebazpenaren bidez, burutza hori betetzeko deialdian onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi zen. Ebazpena 2011ko 30. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 14an.

Jarduketak bukatuta, merezimendu lehiaketaren epaimahai kalifikatzaileak burutzarako hautagai bakarraren izendapen proposamena egin du, deialdiaren 9.d) atalean adierazitako proba gainditu baitu.

Hori kontuan hartuz, eta orobat deialdiaren 13. oinarrian xedatutakoa, bidezkoa da Jesús Flamarique Zaratiegui jauna izendatzea.

Horrenbestez, otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan eskudantziak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Jesús Flamarique Zaratiegui jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko funtzionarioa, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Extranet eta Internet Ataleko buru izendatzea, egindako merezimendu lehiaketan plantilla organikoan 8067 zenbakia duen lanpostua lortu baitu.

2. Izendatu den pertsonak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusian hartu beharko du lanpostuaren jabetza, izendapena jakinarazi ondoko hamar egun naturaleko epearen barruan.

Behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, jabetza hartzen ez badu, burutza aritzeko eskubide guztiak galduko ditu.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari jabetza hartzearen berri eman beharko zaio, behar diren idazpenak egiteko.

3. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

4. Ebazpen hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiari eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Gastuaren Kontrolaren eta Nominen Zerbitzuari eta Langileriaren Kudeaketako Zerbitzuari, eta interesdunari jakinaraztea. Interesdunari aditzera ematen zaio ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal duela, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hila beteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoarekin bat. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatu zen.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 27an.–Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguílaz Gogorza.

F1212490

1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

68E/2012 FORU AGINDUA, abuztuaren 17koa, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak emana, 2012an arte eta kultur jarduerak batera antolatzeko Nafarroako udalei diru-laguntzak emateko deialdia indarrak gabe uzten duena. Martxoaren 21eko 38E/2012 Foru Aginduaren bidez onetsi zen deialdia.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren martxoaren 21eko 38E/2012 Foru Aginduaren bidez, 2012an Nafarroako udaletan arte eta kultur jarduerak batera antolatzeko diru-laguntzen deialdia onetsi zen.

Egungo krisi ekonomikoak ekarri du Nafarroako 2012ko aurrekontu orokorrean aurreikusitako diru-sarrerak gutxiago izatea.

Aurrekontuko egonkortasunaren helburua betetzearren, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 1eko 304/2012 Foru Aginduaren bidez, kautelaz ezarri zen ez erabilgarri izatea 132.000.000 euroko kreditua.

Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren bidez, irizpideak ezarri ziren Nafarroako Gobernuako departamentuek 132.000.000 euroko doikuntza gauzatzeko aurrekontuan.

Erabaki hori garatzeko eta betetzeko, Kultur Ekintza Zerbitzuak proposatu du indarrik gabe uztea "2012an Nafarroako udaletan arte eta kultur jarduerak batera antolatzeko diru-laguntzen deialdia", baimendutako 107.000 euroko gastua askatzea (kontabilitateko 014000202027 espediente), 2012ko gastuen aurrekontu indarduneko Udalen kultur ekintzetarako laguntzak izeneko A20002 A2510 4609 334100 kontu-sailaren kargura dagoena, eta kopuru hori kontu-sailaren erabilgarrian uztea.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen uztailaren 25eko 67/2012 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Indarrik gabe uztea "2012an Nafarroako udaletan arte eta kultur jarduerak batera antolatzeko diru-laguntzen deialdia".

2. Baimendutako 107.000 euroko gastua askatzea (kontabilitateko 014000202027 espediente), 2012ko gastuen aurrekontu indarduneko Udalen kultur ekintzetarako laguntzak izeneko A20002 A2510 4609 334100 kontu-sailaren kargura dagoena, eta kopuru hori kontu-sailaren erabilgarrian uztea.

3. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Foru agindu honen aurka, ez baitu administrazio bidea amaitzen, gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, hura argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 17an.—Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko kontseilaria, Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia.

F1212550

69E/2012 FORU AGINDUA, abuztuaren 17koa, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak emana, Nafarroako Antzokien Sarea izeneko 2012ko diru-laguntzak emateko deialdia indarrik gabe uzten duena. Martxoaren 22ko 41E/2012 Foru Aginduaren bidez onetsi zen deialdia.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren martxoaren 22ko 41E/2012 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako udalei "Nafarroako Antzokien Sarea" izeneko diru-laguntzak emateko deialdia onetsi zen, Foru Komunitateko udal agertokiaren arte eszenikoen programazioa bultzatzeko. Egungo krisi ekonomikoak ekarri du Nafarroako 2012ko aurrekontu orokorrean aurreikusitako diru-sarrerak gutxiago izatea.

Aurrekontuko egonkortasunaren helburua betetzearren, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 1eko 304/2012 Foru Aginduaren bidez, kautelaz ezarri zen ez erabilgarri izatea 132.000.000 euroko kreditua.

Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren bidez, irizpideak ezarri ziren Nafarroako Gobernuako departamentuek 132.000.000 euroko doikuntza gauzatzeko aurrekontuan.

Erabaki hori garatzeko eta betetzeko, Kultur Ekintza Zerbitzuak proposatu du indarrik gabe uztea, "Programazioak agertokietan" izeneko programaren barneko jarduerak egiteko, Udalen kultur ekintzetarako laguntzak 2012an Nafarroako udalei emateko deialdia, baimendutako 471.000 euroko gastu globala askatzea (kontabilitateko 0140001990 espediente), 2012ko gastuen aurrekontu indarduneko "Udalen kultur ekintzetarako laguntzak" izeneko A20002 A2510 4609 334100 kontu-sailaren kargura dagoena, eta kopuru hori kontu-sailaren erabilgarrian uztea.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen uztailaren 25eko 67/2012 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Indarrik gabe uztea Udalen kultur ekintzetarako laguntzak 2012an Nafarroako udalei emateko deialdia, "Programazioak agertokietan" izeneko programaren barneko jarduerak egiteko.

2. Baimendutako 471.000 euroko gastu globala askatzea (kontabilitateko 0140001990 espediente), 2012ko gastuen aurrekontu indarduneko A20002 A2510 4609 334100 kontu-sailaren kargura dagoena, eta kopuru hori kontu-sailaren erabilgarrian uztea.

3. Foru agindu honen kontra administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Horrek ez du galarazten alde zuzeneko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

4. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 17an.—Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko kontseilaria, Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia.

F1212549

70E/2012 FORU AGINDUA, abuztuaren 17koa, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak emana, "Artea eta Kultura" programaren barneko kultur jarduerak egiteko Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdia indarrik gabe uzten duena. Martxoaren 22ko 40E/2012 Foru Aginduaren bidez onetsi zen deialdia.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren martxoaren 22ko 40E/2012 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako udalei diru-laguntzak emateko deialdia onetsi zen, "Artea eta Kultura" programaren barneko jarduerak egiteko.

Egungo krisi ekonomikoak ekarri du Nafarroako 2012ko aurrekontu orokorrean aurreikusitako diru-sarrerak gutxiago izatea.

Aurrekontuko egonkortasunaren helburua betetzearren, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 1eko 304/2012 Foru Aginduaren bidez, kautelaz ezarri zen ez erabilgarri izatea 132.000.000 euroko kreditua.

Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 20ko Erabakiaren bidez, irizpideak ezarri ziren Nafarroako Gobernuako departamentuek 132.000.000 euroko doikuntza gauzatzeko aurrekontuan.

Erabaki hori garatzeko eta betetzeko, Kultur Ekintza Zerbitzuak proposatu du indarrik gabe uztea "Artea eta Kultura" programaren barneko kultur jarduerak egiteko Nafarroako udalei diru-laguntzak emateko deialdia, baimendutako 247.000 euroko gastua askatzea (kontabilitateko 0140001989 espediente), 2012ko gastuen aurrekontu indarduneko "Udalen kultur ekintzetarako laguntzak" izeneko A20002 A2510 4609 334100 kontu-sailaren kargura dagoena, eta kopuru hori kontu-sailaren erabilgarrian uztea.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren egitura organikoa ezarri zuen uztailaren 25eko 67/2012 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Indarrik gabe uztea "Artea eta Kultura" programaren barneko kultur jarduerak egiteko Nafarroako udalei diru-laguntzak emateko 2012ko deialdia.

2. Baimendutako 247.000 euroko gastua askatzea (kontabilitateko 0140001989 espediente), 2012ko gastuen aurrekontu indarduneko A20002 A2510 4609 334100 kontu-sailaren kargura dagoena, eta kopuru hori kontu-sailaren erabilgarrian uztea.

3. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4. Foru agindu honek ez du administrazio bidea amaitzen eta bere aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 17an.—Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuko kontseilaria, Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia.

F1212695

1.7. BESTELAKOAK

59/2012 FORU AGINDUA, abuztuaren 13koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak emana, martxoaren 20ko 137/2012 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak ezarri dira, nekazaritzako politika bateratuaren esparruan zuzeneko laguntzak eta Landa Garapenerako 2007-2013 Programaren 2. ardatzaren esparruan laguntza zehatz batzuk jasotzen dituzten nekazariak eta mahastiak berregituratu eta moldatzeko eta erauzteagatiko prima laguntzeko programen arabera laguntzak jasotzen dituzten nekazariak bete ditzaten. Halaber, nekazaritzako ingurumeneko laguntzak eskatzen dituztenek ongarriak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeko bete beharreko gutxieneko beharkizunak ezartzen ditu.

Kontseiluaren 2009ko urtarrilaren 19ko 73/2009 (EE) Erregelamenduak nekazaritzako politika bateratuaren esparruan zuzeneko laguntzak jasotzeko araubideei aplikagarri zaizkien xedapen komunak ezartzen ditu. Erregelamendu horren 4. artikuluan adierazten da zuzeneko ordainketak jasotzen dituzten nekazari guztiek bete behar dituztela erregelamendu haren II. eranskinean aipatzen diren kudeaketako legezko betekizunak eta, 6. artikuluan indarrez, estatukideek ezartzen dituzten nekazaritzako eta ingurumeneko baldintza egokiak. Artikulu horretan berean ezartzen da nazio-agintari eskudunak nekazarien eskura jarriko duela zerrenda bat, kudeaketan bete beharreko legezko betekizunekin eta ingurumeneko eta nekazaritzako baldintza egokiekin.

Kontseiluaren urriaren 22ko 1234/2007 (EE) Erregelamendua, nekazaritzako merkatuen antolamendu bateratu bat sortu eta nekazaritzako

hainbat produkturendako berariazko xedapenak ezartzen dituenak (MA-Betarako erregelamendu bakarra), 85.21 eta 103.27 artikuluetan dioenez, frogatzen bada nekazari batek, erauzteagatik prima edo berregituraketa laguntzeko programen ondoriozko laguntza ordaindu eta ondoko hiru urteetako edozein unetan ez dituela bere ustiatzearen 1782/2003 Erregelamenduaren (EE) 3.etik 7.era bitarteko artikuluetan aipatzen diren kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak betetzen, laguntzaren zenbatekoa, nekazariari zuzenean leporatzen ahal zaion ekintza edo omisioagatik bete ez bada, hein batean edo erabat murriztu edo ezereztuko dela, zein den hutsegitearen larritasuna, hedadura, iraupena eta errepikapena, eta nekazariak itzuli egin beharko du, bidezko bada, aipatu xedapenetan ezarritakoaren arabera.

Batzordeak 2009ko azaroaren 30ean emandako 1122/2009 (EE) Erregelamenduak arauak ezartzen ditu Kontseiluaren 73/2009 (EE) Erregelamendua garatzeko, erregelamendu horrek nekazaritzako zuzeneko laguntzetarako ezartzen dituen baldintzei, moduluei eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuei dagokienez, eta Kontseiluaren 1234/2007 (EE) Erregelamendua garatzeko, mahastizaintza eta ardogintzaren sektorearentzat ezarritako laguntza araubidearen baldintzei dagokienez. Orobat, kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak ez betetzeagatik murrizketak eta bazterketak erabakitzeko oinarriak ezartzen ditu.

Kontseiluaren 2005eko irailaren 20ko 1698/2005 (EE) Erregelamendua, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funttsaren bidez (LGENF) landa garapenari laguntzeari buruzkoak, ezartzen duenez, 36. artikuluen a) letrako i) ataletik v) atalera eta b) letrako i), iv) eta v) ataletan ezarritako laguntzen onuradunek 73/2009 (EE) Erregelamenduaren 5. eta 6. artikuluetan eta II. eta III. eranskinetan agintzen diren kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak bete beharko dituzte ustiatze osoan.

Batzordearen 2011ko urtarrilaren 27ko 65/2011 (EE) Erregelamenduak Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezarri zituen, landa garapenerako laguntza neurriak hartzeko kontrol prozeduraren eta baldintzen aplikazioari buruz. Erregelamendu horren 19. artikuluan aipatzen da landa garapenerako programetan ongariak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeko ezarri diren gutxieneko beharkizunak bete behar direla nekazaritzako ingurumenerako laguntzak jasotzeko.

Apirilaren 3ko 486/2009 Errege Dekretuak 3. artikuluan ezartzen ditu Europako Batasuneko erregelamendu horrek aipatzen dituen kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak. Dekretu horrek ezarri ditu nekazaritzako politika bateratuaren esparruan zuzeneko laguntzak jasotzen dituzten nekazariak, landa garapeneko laguntza zehatz batzuen onuradunek eta mahastiak berregituratu eta moldatzeko eta erauzteagatik prima laguntzeko programen arabera laguntzak jasotzen dituzten nekazariak bete behar dituzten kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak. Errege dekretu horrek gutxieneko eskaera-maila ezartzen du lurralde nazional guztirako. Hala ere, oinarrizko araudia izanik, badu aski malgutasun tokian tokiko baldintzetara moldatzeko. Azaroaren 13ko 202/2012 Errege Dekretuaren bidez, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako zuzeneko ordainketak 2012tik aurrera aplikatzeari buruzkoa, ur-ibilguen bazterretan babes zerrendak sortu ziren.

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren martxoaren 20ko 137/2012 Foru Aginduaren bidez, kudeaketako legezko betekizunak eta nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak ezarri dira, nekazaritzako politika bateratuaren esparruan zuzeneko laguntzak eta Landa Garapenerako 2007-2013 Programaren 2. ardatzaren esparruan laguntza zehatz batzuk jasotzen dituzten nekazariak eta mahastiak berregituratu eta moldatzeko eta erauzteagatik prima laguntzeko programen arabera laguntzak jasotzen dituzten nekazariak bete ditzaten. Halaber,

nekazaritzako ingurumenerako laguntzak eskatzen dituztenek ongariak eta produktu fitosanitarioak erabiltzeko bete beharreko gutxieneko beharkizunak ezartzen ditu.

Azaldutakoarekin bat, eta Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41.1.g) artikulua ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

AGINDU DUT:

ARTIKULU BAKARRA

I. eranskineko 1. esparruan (Nekazaritzako zein ingurumeneko baldintza egokiak), 1. arauaren 3. atala eta 4. arauaren 7. atala aldatzea. Honela agertuko dira:

1. gaia. Lurzoruaren higadura:

1. araua.—Lurzoruaren gutxieneko estaldura.

3) Landare-estaldura olibadietan.

%10etik gorako malda edo handiagoa duten olibadietan, herbizidak aplikatzearen ondorioz zuhaitzen azpiko zorua bipidua baldin badago, mailarik handieneko lerrotik begiratuta zeharkako kaleetan eta kale paraleloetan gutxienez metro bateko zabalerako landare-estaldura jarri beharko da, lurzatiaren diseinuagatik edo ureztaketa sistemagatik beste norabidean ezartzea ezinezkoa denean, eremuko benetako malda terraza edo zapalda bitartez orekaturik dagoenean izan ezik.

2. gaia. Lurzoruaren materia organikoa.

4. araua.—Uztondoaren kudeaketa.

7) Uztondoak erretzea.

Debekaturik dago uztondoak erretzea, arrazoi fitosanitarioengatik izan ezik.

Aurreko leerroaldean ezarritako salbuespen kasuetan, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

—Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren baimena beharko da, departamentu horrek berariazko araudia ezartzen duen kasuetan izan ezik. Horrelako kasuetan, arau horien arabera erreko dira uztondoak.

—Gainera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak emandako aldeko txostena eduki beharko da. Txosten hori lortzeko, interesdunak alde aurretik eskaera aurkeztu beharko du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuan, data hauetan beranduenez: maiatzaren 10a, I., II. eta III. eskualdeetako lurzatiak direnean, maiatzaren 5a, IV. eta V. eskualdeetako lurzatiak badira, eta apirilaren 30a, VI. eta VII. eskualdeetako lurzatiak direnean. Eskaera horri bere ustiatzearen bistako gertakari fitosanitarioak dituzten NELIGS lurzatiaren zerrenda gehituko zaio (haiek arintzeko, erreketaren metodoa behar dutenak), baita Nekazaritzako ingeniari tekniko edo Nekazaritzako ingeniari batek egindako txostena ere, aipatu gertakariak deskribatzen dituen, eta interesdunak egindako jarduketak, hala nola, aplikatutako tratamendu fitosanitarioak (zein sasoiatan aplikatu diren, zer gai aktibo erabili diren eta zein dositan zehaztuta), eta bestelako aurreneurriak. Zein den kasua, interesdunak balia ditzakeen bestelako jarduketak hartzen ahalko dira kontuan, hala nola, aurreko kanpainetan txandakatze plan egokia ezartzea.

—Baimenean ezartzen ahal diren berariazko baldintzak deusetan galarazi gabe, 8. baldintzan adierazten diren prebentzio neurri orokorrak bete beharko dira gutxienez.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 13an.—Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria, José Javier Esparza Abaurrea.

F1212156

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

ALLIN

Jarduerarako lizentzia. Baimena

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean xedatutakoa bete dadin, aditzera ematen da honako ezaugarri hauek dituen jarduerarako lizentzia eman dela:

Lizentzia eman zen eguna: 2012ko irailaren 4a. Sustatzailea: Alejandro Vidán Segura. Jarduera: landako oiloak sistema erdi estentsibon edukitzeko ustategia handitzea. Tokia: 7. poligonoko 123. lurzatia, Munetan.

Allinen, 2012ko irailaren 4an.—Alkatea, M^a Ascensión Gárriz Ripa.

L1212608

ALTSASU

Aldaketa, Kamioien aparkalekua arautzen duen udal ordenantzan. Behin betiko onespina

Altsasuko Udalak, 2012ko ekainaren 28an egin osoko bilkuran, aldaketa onetsi zuen hasiera batean Kamioien aparkalekua arautzen duen udal ordenantzan. Hura 2012ko 142. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 19an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Altsasun, 2012ko abuztuaren 22an.—Alkatea, Garazi Urrestarazu Zubizarreta.

ARAU, KAMIOEN APARKALEKUA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK FINKATZEKO ETA KONTZEPTU HORREN GAINEKO PREZIOAK EZARTZEKO

ATARIKO KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantza honen xedea. Ordenantzaren xedea da kamioien eta beste ibilgailu batzuen udal aparkalekuen erabilera arautzea eta kontzeptu horregatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea.

2. artikulua. Oinarria. Ordenantza hau ondoko xedapenei jarraikiz onetsi da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 99 eta 262. artikulua; Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen 100. artikulua eta hurrengoak, 4/1999 Foru Legeak aldatu baitzuen; eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduko 93. artikulua eta hurrengoak.

3. artikulua. Ordenantza honen esparru objektiboa. Kamioien udal aparkalekuari aplikatuko zaio.

I. KAPITULUA

Udal aparkalekua erabiltzeko arauak

4. artikulua. Arau honen xedea den udal aparkalekua kamioiak, karabanak eta atoiak baizik ez da erabiliko, eta horretarako bi alderdi bereiziko dira bertan. Aparkaleku hau jabari publikoko ondasuna da, eta haren titulartasuna Altsasuko Udalari dagokio.

Zaindu gabeko aparkalekua da; hortaz, Udalak ez du inolako erantzukizunik izan haren barnean gertatzen diren kalteengatik.

5. artikulua. Udal aparkalekua erabiltzeko interesa dutenek Udalaren lizentzia eskuratu beharko dute.

Lizentzia hori ematen da aparkalekuko plaza bakoitzaren erabilera pribatibo arrunterako, Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduen 93. artikulua arautzen duen bezala, erabileraren intentsitatearen arabera.

Lizentziak urtebeterako ematen dira, luzatzeko aukerarekin, prekarioran eta hirugarrenei kalterik egin gabe. Kontzesiodunak ezinbestean bete beharreko baldintzak finkatuko dira, eta lizentzia horiek noiznahi

baliogabetu daitezke, aipatu baldintzak betetzen ez badira edo interes publikoa tartean badago.

6. artikulua. Lizentzia ematearekin batera, dagokion urteko prezioa ordaindu ondotik, kontzesiodunari agente elektroniko bat ematen zaio, aparkalekuko atea ireki ahal izateko. Agente horren jabea, nolanahi dela ere, Altsasuko Udalaren da.

Halaber, kontzesiodunari identifikazio txartela ematen zaio; hartan, plaza zenbakia eta plaza horri atxikitako ibilgailuaren matrikula agertuko dira. Txartel hori ibilgailuaren aurreko aldean paratu beharko da, ikusteko maneran, aparkalekua erabiltzen den aldiro. Gainerako ibilgailuek debeku izanen dute kamioien aparkalekuan aparkatzea.

7. artikulua. Zirkulazioaren gaineko zerga ordaintzen duten Altsasuko bizilagunek lehentasuna izanen duten lizentzia eskuratzeko, eta betiere baldintza hori betetzen dutenen artean lurzatirik ez dutenek, behar bezalako baldintzetan aparkalekutako erabiltzeko. Plaza hutsik bada, behar den lizentzia esleitu ahal izanen da nahiz eta eskatzailea aparkalekutako egokituriko lurzatiaren jabe izan.

8. artikulua. Lizentzia eskuratzen duten eskatzaileek aparkalekuaren izaera eta xedea kontuan hartuz erabili beharko dute lizentzia hori, inolako kalterik edo galerarik ez eragiteko, zertarako eskatu zen, helburu horrekin egindako erabilera ohikoa, egokia eta arrazoizkoa dela-eta gerta daitekeen higadura izan badaiteke ere.

9. artikulua. Udal aparkalekua ezin izanen da inola ere erabili eskuraturiko lizentziaren helburua ez den beste baterako.

10. artikulua. Udal aparkalekua erabili nahi duten norbanakoek edo entitateek Udalari egin beharko diote eskaera, idatziz egin ere. Datu pertsonalak eta ibilgailuari dagozkionak zehaztu beharko dituzte. Lehentasuna ematen zaie Udal honetan errodaturik daudenei, eta nahitaezkoa izanen da, gainera, ibilgailua herri honetan alta emanda egotea, bai zirkulazioaren gaineko zergan bai JEZearen.

11. artikulua. Udalak eskatzen ahalko du fidantza jar dadin, lege onartzen diren moduetako edozeinen bidez. Udal aparkalekuko lurzatiak behar bezala erabili eta lagapenaren aitzin zeuden horretara lehengoratzeko betebeharrak erantzuteko izanen da fidantza. Halaber, erabiltzaileek ordaindu beharko dituzten kalte-ordainen berme izanen da delako fidantza, udal aparkalekuan halakoak gertatzen direnean. Arau hau aplikatuz zehapenik paratu behar baldin bada, horien ordainketari erantzuteko ere izanen da.

Fidantzaren zenbatekoa izanen da kontzesioaren denbora guztiaren-gatik likidatutako tasaren erditik osora bitartekoa.

12. artikulua. Ematen den lizentziaren epea amaitzen denean, Udalak nahi bezainbat egiaztapen egiten ahalko du, ordenantza honetan eta kontzesio hartzaileen lizentziaren ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak betetzen ote diren ikusteko.

Kontzesiodunek —persona nahiz entitate— ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta lizentziaren baldintzak bete dituztela, kalte-galerarik ez dagoela eta zehapenak paratzeko arrazoirik ez dagoela egiaztatutik ondoren, Udalak fidantza itzuliko du, baldin eta lehendik hura jartzeko eskatu bazen.

Kontrara gertatuz gero, bidezko diren erantzukizunak galdatuko ditu. Horrelakoetan, fidantza izanen da ordaintzeko ordenantza honetan eta lizentziaren baldintzetan ezarritako betebeharrak ez betetzetik, eragindako kalte-galeretatik eta bidezko diren zehapenetatik etor daitezkeen diru erantzukizunak.

II. KAPITULUA

Erantzukizunak, arau-hausteak eta zehapenak

13. artikulua. Kamioien udal aparkalekua erabiltzeko kontzesio hartzaileek eta/edo lizentziaren titularrek erantzun beharko dute, maltzurkeria edo utzikaria direla medio bertan eragiten diren kalte-galerengatik.

14. artikulua. Aparkalekua erabiltzeko lizentziaren titularrak bat baino gehiago badira, denek elkarrekin eta solidarioki erantzun beharko dute, ordainduz prezio publikoak, aparkalekuan eta instalazioetan eragindako kalte eta galerak eta ezartzen diren zehapenak, halakorik gertatuz gero.

15. artikulua. Arau-haustetat hartuko da kamioien aparkaleku izatea ez den bestelako edozein jarduera, eta bereziki ingurunea hondatu eta ingurumena kaltetzen dutenak. Arau-hauste larritzat hartuko dira, besteak beste, aparkalekua zikintzen duen edozein gai bertan utzi edo lagatzea eta edozein jarduera mekanikoa egitea.

16. artikulua. Aipatu arau-hausteak eginez gero, honako zehapen hauek ezarriko dira: Kamioien Altsasuko udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia kentzea.

17. artikulua. Kalte-galerengatik bidezkoa gertatzen den ordaindu beharrekotik aparte ezarriko dira aurreko artikuluetan xedatutakoaren ondoriozko zehapenak.

Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zehapenak beteazpen bidearen bitartez gauzatu eta betearaziko dira.

III. KAPITULUA

Kamioien udal aparkalekua erabiltzeko prezioak

18. artikulua. Zergapeko egintza. Zergapeko egintza da pertsona fisiko edo juridikoek kamioien udal aparkalekua erabiltzeko tasaren zenbatekoa, udal lizentzia eskuratu ondotik.

19. artikulua. Subjektu pasiboa. Tasa hauen subjektu pasiboak izanen dira Udalak lizentzia eman ondoren kamioien udal aparkalekua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

20. artikulua. Karga-oinarria. Karga-oinarria izanen da kamioien udal aparkalekua erabiltzen den hilabeteen kopurua.

21. artikulua. Tarifak. Tarifak arau honen eranskinean agertzen dira.

22. artikulua. Tributu-kuota. Tributu-kuota zehazteko, karga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuko zaio.

23. artikulua. Sorrazpena. Kamioien udal aparkalekua erabiltzeko lizentzia eskatzen den ulean sorraziko dira prezioak.

24. artikulua. Ordainarazpena zer motatakoa den kontuan hartuz, ez da inoiz kuotaren zenbatekorik itzuliko eta ez da onartuko beste erabiltzaileei eskualdaturiko ordainagiririk.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako baldintzak betetakoan hartuko du indarra.

I. ERANSKINA

Plazen identifikazioa

Kamioiak	A-K letrak
Karabanak eta atoiak	1-49 zenbakiak

II. ERANSKINA

Prezioak

Kamioiak	264 euro, BEZik gabe
Karabanak eta atoiak	264 euro, BEZik gabe

L1212035

ANDOSILLA

6/2012 aldaketa aurrekontuan. Behin betiko onespina

Andosillako Udalak, 2012ko uztailaren 26an egin osoko bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera batean onestea aurrekontuko 6/2012 aldaketa, kreditu gehikuntzari buruzkoa.

Iragarkia 2012ko 158. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abuztuaren 10ean, jendaurreko aldia eta erreklamazioetarako epea irekitzeko. Orobat, iragarki horri behar bezainbateko publizitatea eman zitzaion, ediktua Udalaren iragarki oholean agertuta.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 214.2 artikulua lege beraren 202. artikulua gainean ezarritako hamabost eguneko epea iraganik inork alegaziorik edo erreklamaziorik egin gabe, behin betiko onetsitatz jo da aipatu espedienteak.

Hona hemen behin betiko onetsitako aldaketa:

Gastuak goititzea:

452 21200: 30.000,00 euro.

Finantzaketa: Kontu-sail behebitutak.

581 21000: -30.000,00 euros.

Argitara ematen da, aipatu legezkotako aginduak betetzeko asmoz, eta ohartarazten da behin betiko onspen honen aurka bide hauetako bat erabil daitekeela:

–Berraztertzeko errekurtsioa, Andosillako Udalaren Osoko Bilkurari zuzendua, hilabete epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

–Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenean Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zu-

zendua, bi hilabete epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

–Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabete epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Andosillan, 2012ko irailaren 6an.–Alkate udalburua, José Manuel Terés Azcona.

L1212728

BARAÑAIN

Jakinarazpen ediktua gora jotzeko 12-03845 errekurtsioan, Daniel Ruiz Albénizek aurkeztua, Barañaingo Udalak izendaturiko epaimahaiaren 2012ko ekainaren 5eko egintzaren aurka, udaltzain izateko lau lanpostu oposizio bidez betetzeko hautapen prozesuaren lehen ariketaren balorazioa dela eta

Barañaingo Udalaren zerbitzuko udaltzain izateko lau lanpostu oposizio bidez betetzeko hautapen prozesuaren lehen ariketaren emaitzak argitaratu direlarik, interesdun guztiei jakinarazten zaie, epaimahaiaren egintza horren aurka, gora jotzeko 12-03845 errekurtsioa aurkeztu duela Daniel Ruiz Albénizek, Nafarroako Administrazio Auzitegian, nahi badute, beren eskubideak babesteko, Nafarroako Administrazio Auzitegian ager daitezen, gehienez ere hamar egun balioduneko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Horixe jakinarazten zaie interesdun guztiei jakinarazpen honen bitartez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legearen 59.6.a) artikuluan xedatuari jarraikiz.

Barañainen, 2012ko abuztuaren 28an.–Alkate udalburua, José Antonio Mendive Rodríguez.

L1212691

BAZTAN

Aldaketak 2012ko aurrekontuan. Hasierako onespina

Baztango Udalak, 2012ko abuztuaren 30ean egin osoko bilkura arruntean, 5. puntuan, hasiera batean onetsi zituen aldaketak Udalaren 2012ko aurrekontuan.

Espedienteak Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Baztanen, 2012ko irailaren 4an.–Alkatea, Garbifé Elizegi Nabarte.

L1212640

CASTEJÓN

Ziklo konbinatuko zentral termikoen balorazio txosten partziala

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legearen 36.4 artikuluan xedatuarekin eta Udalak 2012ko abuztuaren 31ko osoko bilkuran hartutako erabakiarekin bat, espedienteak jendaurrean egonen da udal bulegoetan, hogeita (20) egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek eta bidezko interesa dutenek alegazioak aurkez ditzaten.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Castejonen, 2012ko irailaren 4an.–Alkatea, Yolanda Manrique Alvarez.

L1212635

LIZARRA

6. aldaketa 2012ko aurrekontu luzatuan. Behin betiko onespina

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan xedatuari jarraikiz, eta jendaurreko epea iragan denez inork alegaziorik aurkeztu gabe, behin betiko onetsi da 6. aldaketa 2012ko aurrekontu luzatuan. Hasierako onspenaren erabakia 2012ko 159. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, abuztuaren 13an.

Laburpena, kapitulua emana:

GASTUAK:

I. kapituluak: 14.379,28.

II. kapituluak: -834,33.

III. kapitulua: -21.999,18.

VI. kapitulua: 11.454,23.

Guztira: 3.000,00.

DIRU-SARRERAK:

IV. kapitulua: 3.000,00.

Guztira: 3.000,00.

Lizarran, 2012ko irailaren 6an.—Alkatea, María Begoña Ganuza Bernaola.

L1212720

ESTERIBAR

Egiturazko aldaketa puntuala Sarasibarren. Hasierako onespena

Esteribarko Udalak, 2012ko abuztuaren 30ean egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Sarasibarko 22. poligonoko 257. lurzatiari dagokionez Susana García Murillok eta José Antonio Vidaurretak sustatu duten egiturazko aldaketa puntuala.

Espedientea jendaurrean egonen da hilabetez, aitzinetik iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaratuta, interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien alegazio edo oharak egin ditzaten.

Esteribarren, 2012ko irailaren 4an.—Alkatea, José Luis Larraínzar Eugui.

L1212642

GENEVILLA

Minusbaliatuei aparkatzeko txartelak ematea arautzen duen ordenantza. Hasierako onespena

Genevillako Udalak, 2012ko uztailaren 17an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Minusbaliatuei aparkatzeko txartelak ematea arautzen duen ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hogeita hamar egunez, gutxienez, onspenaren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta entitatearen iragarki ohelean argitara eman ondotik, herritarrek eta bidezko interesa dutenek epe horretan espedientea aztertu eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak edo oharak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, ordenantza behin betiko onetsi, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Genevillan, 2012ko abuztuaren 30ean.—Alkatea, Esteban Echagoyen Arriaga.

L1212633

GENEVILLA

Agiriak luzatzeagatik eta hirigintzako eta ingurumeneko tramitazioengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Hasierako onespena

Genevillako Udalak, 2012ko uztailaren 17an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Agiriak luzatzeagatik eta hirigintzako eta ingurumeneko tramitazioengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen udal ordenantza fiskala.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua ezarritakoari jarraikiz, espedientea jendaurrean egonen da hogeita hamar egunez, gutxienez, onspenaren erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta entitatearen iragarki ohelean argitara eman ondotik, herritarrek eta bidezko interesa dutenek epe horretan espedientea aztertu eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak, kexak edo oharak aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, ordenantza behin betiko onetsi, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Genevillan, 2012ko abuztuaren 30ean.—Alkatea, Esteban Echagoyen Arriaga.

L1212645

UHARTE

Aldaketa 2012ko plantilla organikoan. Hasierako onespena

Uharteko Udalak, 2012ko abuztuaren 23an egin bilkuran, erabaki zuen aldaketa hasiera batean onestea Uharteko Udalaren eta haren erakunde autonomo Musika Patronatuaren eta Kirol Patronatuaren plantilla organi-

koan eta lanpostuen zerrendan, 2012ko ekitaldikoan; 60/010 lanpostuari dagokio, tronpeta irakaslearen lanpostuari, aurrerantzean, hartan, euskararen hizkuntz eskakizunak %10eko balorazioa izanen baitu.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikulua 236. artikuluari dagokionez xedatuari jarraikiz, onetsitako plantilla idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Uhartan, 2012ko irailaren 4an.—Alkatea, Iñaki Crespo San José.

L1212624

UHARTE

Aurrekontuko 3/2012 eta 5/2012 aldaketak. Hasierako onespena

Uharteko Udalak, 2012ko abuztuaren 23an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zituen Udalaren 2012. urteko aurrekontuko aldaketak (aurrekontuko 3. eta 5. aldaketak Uharteko Udalaren 2012ko aurrekontuan).

Espedientea idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Uhartan, 2012ko irailaren 4an.—Alkatea, Iñaki Crespo San José.

L1212630

LARRAGA

Xehetasun azterlana, Larragako 3. poligonoko 26. lurzatian eremu eraikigarria aldatzeko. Hasierako onespena

Larragako Udalak, 2012ko abuztuaren 30ean egin osoko bilkura aruntean, honako erabaki hau hartu zuen:

Ikusirik Javier Fernández Tancok sustaturiko xehetasun azterlana, Larragako katastroko 3. poligonoko 26. lurzatian eremu eraikigarria aldatzeko.

Proiektuak aldeko txostena izan du hasiera batean onetsi ahal izateko eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluari jarraikiz,

Honako hau xedatu da:

1. Hasiera batean onestea Javier Fernández Tancok aurkeztutako xehetasun azterlana, Larragako katastroko 3. poligonoko 26. lurzatiakoa.

2. Espedientea jendaurrean edukitzea hogeitaz egunetan, hasierako onspenaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, eta Nafarroan kaleratzen diren egunkarietan ere argitaratzea.

Era berean, argitara ematen da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluko 4 eta 5-a) idatz-zatietan xedatutakoa betetzeko, jakinarazpen balioa izan dezan izan litezkeen interesdun ezezagunentzat eta —legeak dioen bezala, saiatuta ere— jakinarazi ezin izan zaienentzat.

Larragan, 2012ko abuztuaren 31n.—Alkatea, Antonio Lamberto Urquijo.

L1212623

LARRAGETA

2012ko aurrekontuak. Hasierako onespena

Larragetako Kontzejuko Batzarrek, 2012ko maiatzaren 22an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Kontzejuren 2012ko aurrekontua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Larragetan, 2012ko maiatzaren 29an.—Kontzejuko burua, María Aurora Mateos Martínez.

L1212680

MIRANDA ARGA

5/2012 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespena

Miranda Argako Udalak, 2012ko abuztuaren 20ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 5/2012 aldaketa Miranda Argako Udalaren 2012ko aurrekontuan.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, bizilagun edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten; hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoaren arabera, baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren gainean garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluen arabera ere.

Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, espedientea behin betiko onetsitaz joko da.

Miranda Argan, 2012ko abuztuaren 22an.—Alkatea, María Teresa Iradiel Ibáñez.

L1212717

MIRANDA ARGÁ

4/2012 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespena

Miranda Argako Udalak, 2012ko abuztuaren 20ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 4/2012 aldaketa Udalaren 2012ko aurrekontuan.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, bizilagun edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten; hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoaren arabera, baita Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren gainean garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluen arabera ere.

Erreklamaziorik aurkeztzen ez bada, espedientea behin betiko onetsitaz joko da.

Miranda Argan, 2012ko abuztuaren 22an.—Alkatea, María Teresa Iradiel Ibáñez.

L1212721

ERRIBERRI

Xehetasun azterlana. Behin betiko onspena

Erriberriko Udalak, 2012ko abuztuaren 31n egin bilkuran, behin betiko onetsi zuen UER-4 unitateko xehetasun azterlana, Patrimonios Inmobiliarios Navarros, S.L.k sustatua.

Argitara ematen da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Erriberrin, 2012ko irailaren 4an.—Alkatea, Francisco Javier Legaz Egea.

L1212666

ORONTZE

1/2012 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onspena

Orontzeko Udalak, 2012ko irailaren 5ean egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 1. aldaketa Udalaren 2012ko aurrekontuan.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Orontzen, 2012ko irailaren 5ean.—Alkatea, Cristina Lorente Hualde.

L1212723

ORONTZE

Ordenantza, Ezkondu gabeko bikoteen erregistroa arautzen duena. Hasierako onspena

Orontzeko Udalak, 2012ko irailaren 5ean egin bilkuran, erregelamenduzko quoruma bildurik, hasiera batean onetsi zuen Ezkondu gabeko bikote egonkorren udal erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza.

Espedientea jendaurrean egonen da hogeita hamar egunean, bizilagun eta interesdunek erreklamazio, kexa edo oharak aurkez ditzaten.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onspena behin betikoa bihurtuko da, erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hori, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Orontzen, 2012ko irailaren 5ean.—Alkatea, Cristina Lorente Hualde.

L1212725

IRUÑA

Aldaketa Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen lan baldintzei buruzko akordioan

Iruñeko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko uztailaren 3an, erabaki hau hartu zuen:

“Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren XI. kapituluaren ezarritakoarekin bat, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarioen negoziazio kolektiboa eta haien lan baldintzak zein izanen diren zehazten parte hartzea sindikatuari aitortzen zaion ordezkartza ahalmenaren bitartez bideratuko dira; bertzeak bertze, negoziagai izanen dira lanpostuak betetzeari dagozkion gaiak, baita funtzionario publikoen ordainsari eta lan baldintzei dagozkien ere.

Iruñeko Udaleko Negoziazio Mahaiak bilkura egin zuen 2012ko ekainaren 26an, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea aplikatzeko. Hartan, akordio batera iritsi zen sindikatuen ordezkariekin aplikazio hori egiteko eta, aldi berean, zenbait puntu aldatzeko enpleguen baldintzei buruzko akordioetan.

Aldaketak alderdi hauei dagozkie: funtzionario nahiz lan-kontratadunek erretiroa hartzeko baldintzak, zenbait ordainsari kontzeptu kentzea, urteko lanaldia handitzearen aplikazioa, funtzionarioendako osasun laguntza osatzeko zenbatekoa eta kreditu sindikaleko orduak.

Horrenbertez,

ERABAKI DA:

1.—Iruñeko Udalean aplikatzea 13/2012 Foru Legean aurreikusitako neurriak honako hauei dagokienez: langileek, hirurogeita bost urte bete eta erretiroa nahitaez hartzeko adinera iritsita, jardunean segitzeko duten aukeraren etena; eta oporraldiei dagozkien elementu aldakorren konpentsazioaren ordainketaren etena (gaueko lanaren konpentsazioa, jaieguneko lanaren konpentsazioa eta bertan egon beharreko guardiak eta guardia lokalizatuak egitearen konpentsazioa).

2.—13/2012 Foru Legearen lehen xedapen gehigarria betez, Iruñeko Udaleko lan-kontratadunei funtzionarioendako finkatu baldintza beretan aplikatuko zaizkie Foru Legearen aurreikuspenak.

3.—Aldaketa onestea Iruñeko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen lan baldintzei buruzko akordioetan, ildo horretatik:

a) 5.1. artikulua.—Lanaldia. Banaz bertze astean hogeita hamazazpi ordu eta erdi irauten duen lanaldia ezarriko da, heldu baita 1.628 lanordu urtean; lanaldi desberdinak ekarrita, honela geldituko da:

A) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.493 ordu.

B) Gauetako txanda finkoa: 1.571 ordu.

C) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetako lana izanik: 1.590 ordu.

D) Goizetako txanda, igande eta jaiegunetako lana: 1.605 ordu.

Iruñeko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 34 minutukoa izanen da, astelehenetik ortziralerara, eta hura 7:35ean hasiko da; eguneko lanorduak honela banatuko dira: 8:00etatik 15:00etara guztien-dako derrigorrezkoa, eta gainerako 34 minutuak langile bakoitzak nola bete erabakita, malgutasunez, 7:35etik 8:00etara bitarte eta 15:00etatik 15:40ra bitarte.

Gainerako zerbitzuek egungo egutegia mantenduko dute, lanaldia 10' luzatuta. Udalizaingoko txandetan lanaldia handitzea erabiliko da txandak gainjartzeko.

b) 23. artikulua. Osasun laguntza.

b.1) Optikari eta odontologiari dagozkion kontzeptu guztiak batuko dira, eta ezarriko itzularen muga bat, 1.500 eurokoa, urte natural, kontzeptu eta onuradun bakoitzeko.

b.2) Arestian aipatu mugarekin, %50eko gastuak ordainduko dira optikan eta odontologian. Nolanahi ere, onuradun desberdinak daudenez, honela aplikatuko da:

b.2.1) Erabilera bereziko osasun laguntzaren zerbitzuan dauden langileak. 350 euro gastatzeko, kontzeptu bakoitzagatik; Osasun Laguntzaren Zerbitzuak itzuli gabeko zenbatekoaren %50 itzuliko da. Zenbateko horretatik aitzina, gastuaren %50 itzuliko da, 1. puntuan ezarritako mugekin.

b.2.2) Gizarte segurantzaren duten langileak. Optikari eta odontologiari dagozkion kontzeptu guztiak batuko dira, eta gastuaren %50 itzuliko da, b.1.) puntuan ezarritako mugekin.

Aldaketa horiek aplikatuko dira itzultzeko abuztutik aitzina aurkeztu diren gastuetan, noiz gertatu diren kontuan hartu gabe.

c) Kreditu sindikaleko ordutxoak. Lan baldintzei buruzko akordioaren 18 eta 26. artikulua aldatu dira, kreditu sindikaleko orduei dagokienez.

18. artikulua. Seguratasun eta Osasun Batzordeko kideek 18 ordutxo kreditu sindikala izanen dute.

26. artikulua. Liberazio sindikal baterako hilean 130 ordutxo kreditua beharko da.

d) Soldata osagarri bat ezarri da, E mailako soldataren %3,5aren heinekoa, funtzionarioek eskuratu beharrekoa haien ezkontide edo bikoteideak diru-sarrerarik ez badu. Horretarako erabiliko da akordioaren 21. artikulua kultur, josteta eta kirol jarduerak sustatzeko Langileen Batzordearen esku uzten zuen dirua."

Iruñean, 2012ko uztailaren 3an.—Tokiko Gobernu Batzarreko idazkaria, Ana María Elizalde Urmeneta.

L1212081

ZANGOZA

Aldaketa Udal Planeko antolamenduko determinazio xehekatuetan.

Hasierako onespina. Aldaketa lurzatiaren itxituren eta eraikin lagungarrien arauketari dagokionez, Gabarderalgo zabalgunen berria izeneko erregulazio eremuko C ataleko ("Diseinu arauak") C.2. azpiatalean ("Diseinu arkitektonikoa")

Zangozako Udalak, 2012ko abuztuaren 14an egindako osoko bilkura arruntan, bertzeak bertze, erabaki hau hartu zuen. Hona haren xedapen zatiak dioena:

1.—Aldaketa hasiera batean onestea Udal Planeko antolamenduko determinazio xehekatuetan. Lurzatiaren itxituren eta eraikin lagungarrien arauketari dagokio, Gabarderalgo zabalgunen berria izeneko erregulazio eremuko C ataleko ("Diseinu arauak") C.2. azpiatalean ("Diseinu arkitektonikoa"). Haren idazketa honekin ordezkatu da:

—Familia bakarreko lurzatiaren itxiturak.

a) Jabari publikoarekin muga egiten duen lurzatiaren itxitura (karrika publikoa). Itxitura bateratua egiten da, ondoko ezaugarriak izanen dituena:

- Garaiera 2 metro izanen da; haietarik, 0,50 metro hormigoizko murru bat izanen da, bistakoa, ertz alakatuak dituen, eta horren gainean, bertze murru bat, 1,50 metro garai, bistako adreiluzkoa.

b) Lurzati partikularren arteko itxiturak, hala erregulazio eremuko U.E. 1 unitatearen garapenaren ondorioz gaur diren bi lurzatiaren artekoak, nola Udal Planeko Gabarderalgo zabalgunen berria izeneko erregulazio eremuko banaketa eremuko lurzoru urbanizagarri programatua banatu ondoan gelditu diren bertze exekuzio unitateetako —U.E-2 edo U.E-3— baten etorkizuneko garapenaren ondoriozko lurzatiak banatzen dituztenak.

- Gehienez ere 2 m garai izanen dira; obrakoak edo metalezko sarekoak izaten ahalko dira edo bi materialak konbinatu.

—Eraikin lagungarria.

Eraikin lagungarriak baimendurik daude, determinazio hauek betetzen badituzte:

- Azalera: lurzatiaren okupazioa %50 izanen da gehienez, bertan dauden eraikin nagusi nahiz lagungarri guztiek.
- Solairu kopurua: beheko solairua.
- Eraikinaren gehieneko garaiera:
 - 2,30 metro teilatu-hegalera.
 - 3,00 metro erlaitzera.
- Akaberako materialak: entokadura, bistako adreilua edo blokea.
- Estalkia:
 - Maldaduna, gehienez ere %25eko maldaduna.
 - Materialak: teilu zeramikoa, arabiarra edo mistoa.
 - Lurzati berera isuritako urak.

—Bizitegitarako ez diren erabilerrak.

2.—Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.3 artikuluan 74. artikuluari dagokionez xedatuari jarraikiz, espedientearen jendaurrean egonen da hilabetearen, aldeztu aurretik iragarkia jarrita Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitateko egunkarietan argitaratuta.

Zangozan, 2012ko abuztuaren 16an.—Alkatea, Angel Navallas Echarte.

L1212068

SUNBILLA

Sunbillako Garaigarri 1, 2 eta Donibane karriketan hornidura, saneamendu eta euri uraren sareak, argiak eta zoladura berritzeko obretarako kontribuzio bereziak ezartzeko espedientearen Behin betiko onespina

Sunbillako Udalak, 2012ko otsailaren 21ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Kontribuzio bereziak arautzen dituen ordenantza fiskala. Iragarkia 2012ko 53. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, martxoaren 15ean.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Sunbillan, 2012ko maiatzaren 21ean.—Alkatea, Amets Inda Gorriarán.

I. ERANSKINA

Sunbillako Garaigarri 1, 2 eta Donibane karriketan hornidura, saneamendu eta euri uraren sareak, argiak eta zoladura berritzeko obretarako kontribuzio bereziak

Sunbillako Udalak, 2012ko otsailaren 21ean egin osoko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen aho batez:

1. Hasiera batean onestea Sunbillako Garaigarri 1, 2 eta Donibane karriketan hornidura, saneamendu eta euri uraren sareak, argiak eta zoladura berritzeko obretarako kontribuzio bereziak ezartzeko espedientearen.

2. Hasiera batean onestea kontribuzio bereziak ordenatzeko erabaki zehatza, honako eduki honekin:

a) Subjektu pasiboak.

Garaigarri 1, 2 eta Donibane karriketako sareez baliatzen diren lurzatiaren jabe guztiak.

b) Zerga-oinarria.

Obraren kostuaren %20, proiektuaren eta zuzendaritzaren eta perituen lanaren ordainsariak barne, diru-laguntza kenduta, heldu baita 41.080,68 euro, auzoek ordaindu beharrekoak.

Udalak ordaindu behar duen zenbatekoa da gainerako 164.322,74 euroak.

Kopuru hori Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 112.3 artikuluari jarraituz finkatu da, aurreikuspen gisara, eta behar izanez gero aldatuko da, obrak bukatu eta benetako kostua ezagutu ondoren.

c) Banaketa moduluak.

—Aurrekontuaren 1/3 (13.693,56 euro), lurzatiak karrikarekin egiten duen mugako metro linealen heinean.

—Aurrekontuaren 1/3 (13.693,56 euro), lurzatiaren katastroko balioaren heinean.

—Aurrekontuaren 1/3 (13.693,56 euro), lurzatiaren azaleraren heinean.

d) Kuota bereziak.

Banakako kuota, banaketa irizpideak aplikatzearen ondoriozkoak, espedientearen jasotzen dira.

e) Ordaintzeko modua.

Eskudirutan, obrak bururatzen diren ekitaldi ekonomikoaren barnean, edota, gerorapenarekin, betiere kuota 622 eurotik goitikoa bada.

Zenbatekoaren gainerako gehienez ere 6 urteko epean ordaindu daiteke, baina urtean 622 euro ordaindu behar dira gutienez, korrituak aparte.

f) Xedapen aplikagarriak.

Kobrantzarako, diru-bilketarako eta erabaki honetan espresuki aipatzen ez den guztirako, Kontribuzio berezien ordenantza, Ordenantza fiskal orokorra eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aplikatuko dira.

3. Zergadunen zerrenda onestea, baita banaketa moduluei zerga-oinarria aplikatzetik ateratzen diren bana-banako kuota ere, zein bere finkari edo ukitutako jabeak dagokiola, betiere erabaki honetan onetsitako banaketa oinarrietatik ateratzen den moduan, espedientearen jaso baitira.

Orobat, obrek ukitutako jabeek zergadunen elkarte administratiboak eratu ahalko dituzte.

L1212033

UXUE

2012ko aurrekontua. Behin betiko onespina

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 277. artikuluan xedatuari jarraikiz, jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsi da 2012ko udal aurrekontua. Hasierako

onespenaren erabakia 2012ko 156. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, abuztuaren 8an.

DIRU-SARRERAK:

- I. kapitulua: 98.300 euro.
 - II. kapitulua: 25.000 euro.
 - III. kapitulua: 32.400 euro.
 - IV. kapitulua: 82.315 euro.
 - V. kapitulua: 98.161 euro.
 - VI. kapitulua: 9.000 euro.
 - VII. kapitulua: 1.049 euro.
- Diru-sarrerak, guztira: 346.225 euro.

GASTUAK:

- I. kapitulua: 99.660 euro.
 - II. kapitulua: 165.825 euro.
 - III. kapitulua: 8.250 euro.
 - IV. kapitulua: 20.990 euro.
 - IX. kapitulua: 51.500 euro.
- Gastuak, guztira: 346.225 euro.

Uxuen, 2012ko irailaren 6an.—Alkatea, María Jesús Zoroza Ugalde.

L1212712

VILLATUERTA**3/2012 aldaketa aurrekontu arruntan. Behin betiko onespina**

Udalak, 2012ko ekainaren 5ean egin osoko bilkura berezian, hasiera batean onetsi zuen 3/2012 espedientean dagoen aurrekontu aldaketa. Hasiera batean onesten duen erabakia 2012ko 138. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 13an. Jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, aurrekontuko aldaketa hori behin betikoz onetsi eta argitara ematen da, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

3/2012 espedientea**KREDITU BEREZIA:**

- 2. kapitulua.—Zenbatekoa: 1.465,78 euro.
 - 6. kapitulua.—Zenbatekoa: 87.024,56 euro.
- Gastuak, guztira: 88.490,34 euro.

FINANTZAKETA:

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza: 29.929,60 euro.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina: 58.560,74 euro.
- Diru-sarrerak, guztira: 88.490,34 euro.

Villatuertan, 2012ko irailaren 3an.—Alkatea, María José Fernández Aguerri.

L1212732

ZIZUR NAGUSIA**Udal katastroko 2. poligonoko 191. lurzatiaren plan berezia. Behin betiko onespina**

Zizur Nagusiko Udalak, Tokiko Gobernu Batzarraren 2012ko ekainaren 22ko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea udal katastroko 2. poligonoko 191. lurzatiaren erabileren ingurumen aldeko hirigintzako kontrolerako Plan Bereziaren espedientea, Gabriel Villanueva Domínguezek sustatua.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan ezarritakoa betetzeko, jendaurrean eduki zen, eta epe horretan inork alegaziorik aurkeztu ez duenez gero, Zizur Nagusiko Udalak aipatu espedientea behin betiko onetsi zuen 2012ko abuztuaren 30ean egin osoko bilkuran.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Zizur Nagusian, 2012ko irailaren 4an.—Alkatea, Luis María Iriarte Larumbe.

L1212605

SAN FRANCISCO JAVIER ZAHAR ETXEAREN MANKOMUNITATEA**Aldaketa tarifa eta tasetan, 2012ko ekitaldirako. Behin betiko onespina**

San Francisco Javier Zahar Etxearen Mankomunitateak, 2012ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, hasiera batean onetsi zituen tasa eta tarifetako aldaketak 2012ko ekitaldirako (2012ko 149. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 30ean, argitaratua).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraikiz (maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatua), jendaurreko epea alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, bidezko da aldaketa behin betiko onetsi eta testu osoa argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Fustiñanan, 2012ko irailaren 3an.—Burua, María del Yugo Aguirre Morales.

Bere buruaz baliatzen denaren plaza, banako gelan	893,0 euro/hilabetea
Bere buruaz baliatzen denaren plaza, gela partekatuan:	780,00 euro/hilabetea
Erdizka laguntza behar duenaren plaza	1.186,00 euro/hilabetea
Laguntza behar duenaren plaza:	1.683,00 euro/hilabetea
Eguneko egonaldia, osorik eta jarraian, bere buruaz baliatzen dena	585,00 euro/hilabetea
Eguneko egonaldia, osorik eta jarraian, bere buruaz erdizka baliatzen dena	890,00 euro/hilabetea
Eguneko egonaldia, osorik eta jarraian, laguntza behar duena	1.262,00 euro/hilabetea
Egun erdiko egonaldia, jarraian, bere buruaz baliatzen dena	292,00 euro/hilabetea
Egun erdiko egonaldia, jarraian, bere buruaz erdizka baliatzen dena	445,00 euro/hilabetea
Egun erdiko egonaldia, jarraian, laguntza behar duena	631,00 euro/hilabetea
Zerbitzu soltea edo aldi baterako zerbitzua	43 euro/eguna
Zerbitzu soltea edo aldi baterako zerbitzua, erdizka laguntza behar duena eta laguntza behar duena	74,00 euro/eguna

Familiarendako plaza: senar-emazteetan bat bere buruaz baliatzen ahal bada eta besteak laguntza behar badu, bere buruaz baliatzen ahal denaren kuota % 25 beheratuko da.

L1212564

ANTSOAINGO, BERRIOBEITIKO, BERRIOZARKO, ITZAKO ETA TXULAPAINGO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA**2012ko aurrekontu orokor eta bakarra, eta hura betearazteko oinarriak. Behin betiko onespina**

Jendaurreko epea iragan eta inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluan xedatuari jarraikiz, behin betikoz onetsi dira 2012ko aurrekontu orokor eta bakarra eta hura betearazteko oinarriak. Hasierako onespeneraren erabakia 2012ko 149. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, uztailaren 30ean.

DIRU-SARRERAK:

- III. kapitulua.—Tasak eta prezio publikoak: 21.000,00 euro.
 - IV. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 1.038.147,00 euro.
 - V. kapitulua.—Ondareko diru-sarrerak: 785,00 euro.
- Diru-sarrerak, guztira: 1.059.932,00 euro.

GASTUAK:

- I. kapitulua.—Langileria gastuak: 977.820,00 euro.
- II. kapitulua.—Ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketak: 52.112,00 euro.

- IV. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 30.000,00 euro.

Gastuak, guztira: 1.059.932,00 euro.

Berriozarren, 2012ko abuztuaren 31n.—Mankomunitateko burua, Koldo Pla Larremendi.

L1212648

ERRIBERAGOIENEN KIROLO MANKOMUNITATEA**Aldaketa 2012ko ekitaldiko aurrekontu arruntan. Hasierako onespina**

Mankomunitatearen Batzarrak, 2012ko maiatzaren 21ean egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2012ko ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarrek aldaketa hau:

1/2012 zenbakiko espedientea**Kreditu gehikuntza:**

- 2. kapitulua.—Zenbatekoa: 1.906,77 euro.
- 4. kapitulua.—Zenbatekoa: 200,00 euro.

Kreditu berezia:

- 2. kapitulua.—Zenbatekoa: 8.920,00 euro.
- Gastuak, guztira: 11.026,77 euro.

Finantzaketa:

Diru-sarreretako 4. kapitulua: 11.026,77 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 11.026,77 euro.

Erabakia jendaurrean egonen da 15 egun baliodunean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Mankomunitatearen iragarki oholean iragarkia jarri ondotik, herritarrek edo interesdunek hura aztertu eta bidezko erreklamoak aurkeztu ditzaten.

Lodosan, 2012ko irailaren 4an.—Mankomunitateko burua, Yara Baigorri Rodríguez.

L1212634

ERRIBERAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA

Hiri hondakin solidoen kudeaketa arautzen duen ordenantza. Behin betiko onespena

Erriberako Mankomunitateak, 2012ko ekainaren 19an egin batzar orokorrean, hasiera batean onetsi zuen Hiri hondakin solidoen kudeaketa arautzen duen ordenantzaren testu bategina. Erabaki hori 2012ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, uztailaren 11n.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuarekin bat, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork erreklamaziorik aurkeztu gabe iraganik, bidezko da ordenantza hori behin betiko onestea eta haren testu osoa argitaratzea; aipatu legearen 326. artikuluan xedatuaren arabera, horrek ez du ondorio juridikorik sortuko harik eta iragaten den arte Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateei beren egintza edo erabakiak indargabetzeko eskatzeko duten eskumena erabiltzeko epea.

Tuteran, 2012ko abuztuaren 20an.—Mankomunitateko burua, María Isabel Echave Blanco.

ERRIBERAKO MANKOMUNITATEA. HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN TESTU BATEGINA

ZIOEN AZALPENAK

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak (HLKL) indarrak gabe utzi zuen Hondakinei buruzko 10/1998 Legea, baita hona ekarri ere 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/CE Zuzentaraua; xede gisa ezartzen du hondakinen kudeaketaren arauketa eta lurzoru kutsatuen araubide juridikoa, egungo arau-esparrua aldatuz europar zuzenbidera egokitu eta Espainiako hondakinen ekoizpen eta kudeaketaren araubide juridikoa hobetu beharrez.

Arautegi berri honek, batetik, helburu sail bat jartzen du halako hondakin mota batzuen gainean eta, bertzetik, hondakinen arloan eskumenak dituzten administrazio publikoak behartzen ditu printzipio batzuk berengantzerara, hondakin arloan egiten dituzten jardueren oinarrian egon behar dutenak.

Printzipio horiek, nagusiki, giza osasunaren eta ingurumenaren babesa bermatzera jotzen dute, hondakinen kudeaketak ez batari ez bertzeari arriskurik ekar ez diezaion; gainera, hierarkiaren printzipioa ezartzen du, berrikuntza bat aitzineko arautegiaren aldean.

Hierarkia horren gailurrean prebentzio jarduera dago, hau da, helburu duena sortzen diren hondakinen kopurua, hondakinek eragindako kalteak eta material eta produktuetan dauden gai kaltegarrien edukia gutxitzeko neurriak hartzea.

Beheratago, hurrenez hurren kausitzen ditugu hondakinen berrera-bilpena, birziklatzea eta balorizazioa, erran nahi baita, edozein jarduketara, haren emaitza nagusia bada hondakinak xede baliagarria izatea, bertzela eginkizun partikular bat betetzeko erabiliko liratekeen materialak ordezkaturik, edo hondakina prestatzea, eginkizun hori instalazioan nahiz oro har ekonomian betetzeko.

Eta azkenik, "kutsatzen duenak ordaindu egin behar du" printzipioa, arau berriak berriz ere formulatzen duena hondakinen kudeaketaren kostuak hasierako ekoizleari, egungo edukizileari edo aitzineko edukizileari pasatuz, noiz eta horrela; printzipio hori jadanik aplikatzen hasiak ziren aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen kudeaketan.

Mankomunitateak bere jarduerari hasiera emateko ordenantza hau ezari-ezarian aldatuz joan da, batzuetan alorreko araudia aldatu delako, eta bertzetik batzuetan zerbitzu berriak ematen hasi delako. Hondarrekoa 2003koa da.

Azkenik, adierazi behar da idazketa honek —arauetan behin eta berriz egin zaizkion aldaketan ondorioz, testu bateginaren forma hartuko du— bi eragile dituela, batetik, gure gizartearen gertatzen ari diren aldaketa so-

ziologiko eta ekonomikoak, hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko moduari eta ereduari eragiten diotenak, eta bertzetik, Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen bigarren xedapen iragankorrean xedatuaren aplikazioa, bi urteko epea ezartzen baitu, indarra hartzen duenetik, hondakinen arloan eskumenak dituzten administrazioek beren ordenantzak egoki ditzaten delako legean agintzen denera.

I. TITULUA

Baldintza orokorrak

1. artikulua. Mankomunitatea.

Erriberako Mankomunitatea elkarte gisako toki entitatea da, berteak bertzetik helburu duena hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzuak egitea, hura osatzen duten toki entitateen mugapeetan, baita esparru juridiko eta tekniko egokia ezartzea ere, pertsonen osasunaren babeserako eta ingurumenaren babes eta iraunkortasunerako.

Mankomunitateak, gainera, toki erakundearen zerbitzuak emateari buruz indarra duen araudiari jarraikiz, berak eratutako merkataritzako sozietate honen bitartez kudeatzen ahalko ditu aitzineko artikulua aipatzen dituen zerbitzuak: Servicios Públicos de la Ribera de Navarra, S.A. (Serinsa), bere enpresa kudeatzailea.

2. artikulua. Xedea.

Hiri hondakin solidoak biltzeko eta tratatzeko zerbitzua egitea arautzen duen ordenantza hau ezarri da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan toki entitateei aitortzen zaien erregelamendu ahalmenaren babespean eta harekin bat, eta haren idazketan eta printzipioetan lotu zaio Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean xedatuari, xedea izanik hiri hondakin solidoak kudeatzeko zerbitzua bere gain hartzen duen entitatearen eta haren erabiltzaileen arteko harremanak arautzea, aipatu lurralde eremuan, eta alderdi bakoitzaren eskubide, betebeharrak eta eginbeharrak zehaztuta.

Zerbitzu horien tributu eta diru-bilketa kontuetarako, toki ogasunei buruz Nafarroan indarra duen araudi berariazkoari eta, batez ere, une bakoitzean indarra duen eta Mankomunitateak onesten duen ordenantza fiskalari egin beharko zaie kasu.

3. artikulua. Aplikazioa.

Ordenantza hau oro har aplikatuko zaie hiri hondakin solidoak kudeatzeko zerbitzuei beren eskumen esparruan. baita hala behar badu, osoki nahiz partez, esparru horretatik kanpora egiten direnei, eta haren arauak analogiaz aplikatuko zaizkio espresuki arauturik ez dauden kasuei ere, haien izaera dela-eta bere aplikazio eremuan badaude; Mankomunitateak berea du ordenantza hau aplikatzean ager daitezkeen zalantzak argitzeko ahalmena.

4. artikulua. Bazterketak.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 2. artikuluan aipatzen diren bazterketek aparte, ordenantza hau ez zaie aplikatuko merkataritzako hondakin arriskutsuei eta industria hondakinei, alegia, lege horren 3 d) artikuluan hala definitzen direnei.

5. artikulua. Definizioak.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak dauzkan kontzeptu eta definizioetarako batzuk ekartzen dira hona, berarekin bat:

a) "Hondakina": edozein gai edo gauza, jabeak bota egiten badu edo botatzeko asmoa edo betebeharra badu.

b) "Etxeko hondakinak": etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakinak. Horien gisakoak, zerbitzuek eta industriek sortuak ere, hartuko dira etxeko hondakintzat.

Honako hauek ere kategoria honetan sartzen dira: aparatu elektriko eta elektronikoetatik etxean sortzen direnak, arropa, pilak, metagailuak, altzariak eta lanabesak, baita etxeetan egiten diren eraikuntza edo konponketa obra tikietatik heldu diren hondakinak eta obra hondakinak.

Honako hauek ere etxeko hondakintzat hartuko dira: eremu publikoak, berdeguneak, josteta eremuak eta hondartzak garbitzetik heldu direnak, etxeko animalia hilak eta ibilgailu abandonatuak.

c) "Merkataritzako hondakinak": handizkako nahiz txikizkako merkataritzak berezko duen jardueratik sortuak, baita jatetxe eta ostatuetako zerbitzuetatik, bulego eta merkatuetatik eta zerbitzu sektoreko gainerakoetatik heldu direnak ere.

d) "Industriako hondakinak": industria jarduerak sortzen dituen fabrikazio, eraldakuntza, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentze prozesuen ondoriozko hondakinak, kanpo utzirik atmosferarako isuriak, azaroaren 15eko 34/2007 Legeak arautzen baititu.

e) "Hondakin arriskutsuak": Legearen III. eranskineko zerrendan agertzen diren ezaugarri arriskutsuetarik bat edo gehiago dituzten hondakinak,

baita Gobernuak onesten dituenak ere Europako araudian edo Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoari jarraikiz, eta orobat hondakin horien eduki dituzten ontziak.

f) "Olio erabilik": olio guztiak, hala mineralak nola sintetikoak, industrialak edo labainketakoak, jatorrian aurreikusitako erabilera arako jadanik balio ez dutenak, hala nola errekuntzako motorretako olio erabilik eta abiadura-kaxetako olioak, olio labaintzaileak, turbinetarako olioak eta olio hidraulikoak.

g) "Biohondakina": biodegradatzen ahal den hondakina, lorategi eta parkeetako, eta elikadurako eta sukaldeko hondakina, etxe, jatetxe, taldeendako sukaldaritza zerbitzu eta txikizkako salmentan aritzen diren establezimenduetatik heldu dena, baita horiekin pareka daitekeen hondakina ere, elikagaiak prozesatzeko plantetatik heldu dena.

h) "Prebentzioa": gai, material edo produktu bat asmatu eta diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko faseetan honako hauetarako hartzen diren neurriak:

1. Hondakin kopurua, produktuak berriz ere erabilirik edo produktuen bizi erabilgarri luzaturik.

2. Sortutako hondakinek ingurumenari eta giza osasunari egiten dizkieten kalteak, barne dela aurrezte materialak edo energia erabiltzean.

3. Gai kaltegarrien edukia, material eta produktuetan.

i) "Hondakinen ekoizlea": pertsona fisiko edo juridikoa oro, haren jarduerak hondakinak sorrarazten baditu (hondakinen hasierako ekoizlea) edo hondakin horien izaeran edo osaeran aldaketa eragiten duten jarduketak egiten baditu, hala nola alde aurreko tratamendua, nahasketak edo bertzelakoak. Mugetako instalazioetan kontrol eta ikuskaritza zerbitzuek kentzen dituzten salgaien kasuan, salgaiaren ordezkaria hartuko da hondakinen ekoizletzat, edo bertzenaz haren inportatzaile edo esportatzailea.

j) "Hondakinen edukitzailea": hondakinak dauzkana, izanik hori hondakinen ekoizlea edo berte pertsona fisiko edo juridikoa.

k) "Hondakin kudeaketa": hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua, eta lan horiek zaintzea, eta zaborteziak itxi eta geroko mantentze-lana egiten duena, eta negoziatzaile edo agente gisa egiten diren jarduketak.

l) "Hondakinen kudeatzailea": pertsona edo entitatea, publikoa nahiz pribatua, baimen bidez edo komunikazio bidez erregistratua, hondakinen kudeaketa osatzen duten jarduketetarako edozein egiten duena, haien ekoizlea izan ala ez.

m) "Bilketa": hondakinak jasotzea, barne dela hasierako sailkapena eta biltegiratzea, horiek garraiatzeko tratamendurako instalazio batera.

n) "Gaikako bilketa": hondakinen emari bat gaika egiten da, haien mota edo izaeraren arabera, tratamendu berariazkoa errazteko.

o) "Berrerabilpena": edozein lan, haren bidez produktuak edo produktuen osagaiak, hondakin ez direnak, berriz ere erabiltzen badira, zertarako asmatu ziren eta horrexetarako.

p) "Tratamendua": balorizazio edo ezabaketa jarduketak, barne dela balorizazioaren edo ezabaketaren aitzineko prestakuntza.

q) "Balorizazioa": edozein jarduketa, haren emaitza nagusia bada hondakinak xede baliagarria izatea, bertzenaz eginkizun partikular bat betetzeko erabiliko liratekeen materialak ordezkaturik, edo hondakina prestatzea, eginkizun hori instalazioan nahiz oro har ekonomian betetzeko. Legearen II. eranskinean jasotzen da balorizazio lanen zerrenda osatu gabea.

r) "Berrerabilpenerako prestakuntza": egiaztapena, garbiketa edo konponketa dakarren balorizazio lana, haren bidez hondakin bilakatu diren produktuak edo produktuen osagaiak prestatzen badira berriz ere erabili ahal daitezen berte inolako eraldaketarik gabe.

s) "Birziklatzea": balorizazio lana, haren bidez hondakinen materialak berriz ere produktu, material edo gai bilakatzen badira, hala jatorrizko xederako nola berte edozein xedetarako. Haren barnean sartzen da material organikoaren eraldaketa, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregaitako edo betelanetarako erabiliko diren material bilakatzea.

t) "Ezabaketa": edozein jarduketa, balorizazioa ez bada, baita lan horren bigarren mailako ondorioa denean gaien edo energiaren aprobeitxamendua. I. eranskinean, ezabaketa barne hartzen duten lanen zerrenda ez osoa.

6. artikulua. Hondakinen jabetza.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legearekin bat, etxeko hondakinak eta merkataritzako hondakin arrisku gabeak ordenantza honetan finkatzen diren baldintzetan utzi behar edo ahal dituzte Mankomunitatearen eskutan; eskuratzen dituenetik aitzina, horien jabe bilakatuko da.

Hiri hondakinen edukitzaileek erantzunbeharrik ez dute izanzen hondakin horiek egin ditzaketen kalteengatik, betiere haiek ematean aipatu ordenantza nahiz aplikatzeko diren gainerako arauak begiratu badira.

II. TITULUA

Hiri hondakinen bilketa

I. KAPITULUA

Baldintza orokorrak eta hondakinen kategoriak

7. artikulua. Baldintza orokorrak.

Titulu honek arautuko du Erriberako Mankomunitateak zer baldintzetan emanen dituen eta erabiltzaileak zer baldintzetan jasoko dituen hiri hondakinak biltzeko zerbitzuak.

8. artikulua. Erabiltzaileak.

Zerbitzu hauek egiteari dagokionez, erabiltzaileak dira zerbitzu horien onura jasotzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

9. artikulua. Hondakinen kategoria.

Ordenantza honi dagokionez, hondakinekin ondotik ematen diren kategoriak ezarri dira; horiek, aldi berean, zerbitzuak egiteko baldintzak definitzen dituzte; horietariko bat etxeko zaborren eta haien parekoen bilketa, nahitaez hartzekoa da, eta gainerakoak, borondatezkoa herriarrendako. Hona hemen:

A. Etxeko zaborrak eremu publikoetan edo puntu garbietan ezarritako edukiontzien bidez biltzeko zerbitzua; hiri hondakin hauei dagokie:

1. Elikaduraren eta kontsumoaren ondorioz herritarrek beren etxebizitzetan sortzen dituzten hondarrak.

2. Herritarrek edo Udaleko garbiketa zerbitzuek espaloiak ekortzetik heldu diren hondakinak.

3. Etxetako hondakinen parekoak: etxetako hondakinen parekotzat joko dira ondotik aipatzen diren hauek, baldin eta egunero uzten dena 50 litrotik beheitikoa ohi bada.

a) Zuhaitzak kimatzean eta landarezaintzako lanetan sortutako saskara, xehakaturia utziz gero.

b) Saltokietako salgaien azalak, ontziak, bildukiak eta gainerako hondakin solidoak.

c) Zerbitzu, merkataritza edo industria jardueretatik heldu diren hondakinak, etxetako hondakinen antzeko ezaugarriak dituztenak.

d) Jaki prestatuak edo edozein motatako kontsumizioak eskaintzen dituzten ostatu, jatetxe edo gainerako establezimenduetan sortzen diren hondakinak. Halaber, supermerkatu, autozerbitzu eta gisako establezimenduetan sortutakoak.

e) Egoitza, hotel, ikastetxe eta berte establezimendu publikoek sortzen dituzten kontsumoko hondakinak, oro har.

f) Udal azoken jardueretatik heldu diren hondakinak.

g) Arriskugarrien kalifikazioa duten hondakinak, herritarrek beren etxebizitzetan ekoizten dituztenak. Ez dira edukiontzietara botatzen ahaliko, baizik eta puntu garbi finko nahiz mugikorretan utzi.

h) Etxebizitza eta saltokietan ekoiztutako erraustak, betiere arrunt itzalirik badaude.

l) Beren izaera, osaera edo ezaugarriak direla-eta hiri hondakinekin parekatzen ahal direnak.

B. Etxeko bilketan inondik ere sartuko ez liratekeen berte hondakin solido batzuk eta, beraz, debeku dutenak erabilera publikoko edukiontzietara botatzea.

1. Industriakoak: hona hemen zein joko diren industriakotzat:

a) Lantegi, tailer, biltegi eta denda handietan sortutako hondar, erraust eta zepak; eta hondakinak tratatzeko instalazioetan sortuak.

b) Pneumatikoak.

c) Nekazaritza eta abeltzaintza ustategietatik heldu direnak.

d) Orokorrean, hiri hondakinak, baldin eta haien aurkezpena, bolumena, pisua, eguneroko libramendu kopurua, hezetasun edukia eta bertzelakoak direla-eta, Mankomunitatearen zerbitzuen iritiz, ez badira izaten ahal hiri hondakinen etxeko bilketaren xede, halakotzat harturik eguneroko libramendu kopurua, banaz berte, 50 litro baino gehiago delarik.

2. Hondakin klinikoak.

3. Animalia hilak eta Mer eta Sandach kalifikazioa duten hondakinak, haragi ustategietatik, harategietatik, arrandegietatik eta abarretatik heldu direnak, 2008ko otsailaren 21eko CE 1774/02 Erregelamenduaren arabera kalifikatuak.

4. Lurrak eta obra-hondakinak.

5. Altzariak, etxe tresnak eta traste zaharrak.

6. Hondakin arriskutsuak.

7. Hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak.

8. Erradiaktiboak.

9. Leherkariak eta piroteknikoak.

II. KAPITULUA

Nahitaezko zabor bilketa

10. artikulua. Etxeko bilketa. Ordenantza honi dagokionez, etxeko zabor bilketa egiten da 9.A) artikuluan definituriko hiri hondakin solido nahitaez jaso beharrekoekin, erabiltzaileak nahitaez behar bezala erabili behar dituen edukiontzien bidez. Etxeko zabor bilketa zerbitzuaren barnean lan hauek sartzen dira:

- Zaborrak lekualdatzea, uzten diren tokitik biltzen dituzten ibilgai-luetaraino.
- Zaborrak ibilgailu horietako zama-tokietara hustea.
- Hustu ondoan edukiontziak beren ohiko lekuetara itzultzea.
- Lan hauek direla medio eremu publikora eroritako zaborrak biltzea.
- Zaborren garraioa eta hustuketa Erriberako Mankomunitateak horretarako prestaturiko tratamendu zentroetan.
- Edukiontziak garbitzea eta mantentzea.

11. artikulua. Programazioa.

Mankomunitateak etxeko zabor bilketa ezarriko du haren kide den udal-erri bakoitzaren interesetarako egokiena iruditzen zaion maiztasunarekin eta zerbitzua egiteko funtzionamendurik hoberenarekin.

Mankomunitateari beharrezkoa iruditzen zaion guztietan, urtero emanen da bilketa zerbitzuak egiteko aurreikusitako programazioaren berri, zerbitzuen beharren arabera; bilketa zerbitzuen programan noiznahi sartzen ahalko ditu, interes publikoko edo zerbitzuko arrazoiak direla-eta, komenigarri iruditzen zaizkion aldagetak, baina zerbitzua egiteko ordutegian, moduan edo maiztasunean edozein aldageta eginez gero, behar den antzintasunaz gaztigatuko da, salbu eta larrialdi egoeran Mankomunitateko buruak ematen dituen xedapenak.

12. artikulua. Arau orokorrak.

1. Erabiltzaileak beharturik daude behar bezala erabiltzera Mankomunitateak noiznahi paratzen dituen edukiontziak.

2. Mankomunitateak finkatuko ditu edukiontzi mota, haien ezaugarriak teknikoak, etxe multzo, merkataritzako edo industriako lokal edo establezimendu batean erabiliko den edukiontzi kopurua, eta haien kokapena; egoera berezietan, kentzen ahalko dira.

Mankomunitateak edukiontzien kokalekua halako toki batean finkatuz gero, ez da aldatzen ahaliko espresuki oniritzia ematen ez badu. Mankomunitateak beretako gordeko du interes publikoko arrazoiengatik edukiontzien kokalekua behin betiko edo modu iragankorrean aldatzeko eskubidea. Azken kasu horretan, jatorrizko lekura itzuliko dira, lekualdatzea ekarri zuen arrazoiak desagertu ondoan.

3. Arau bereziak: bilketa instalazioak, egun dagoen parkea handituz edo aldatuz.

Erriberako Mankomunitatearen eskumen eremuaren barnean, urbanizazio berriko eremuetan edo egun dauden instalazioak handitzea edo aldatzea eskatzen duten hiriguneetan bilketa puntu berriak paratzeko, kontuan hartuko da biltzeko modurik ba ote den eta betiere Udalaren hirigintza arauetan ezarritako baldintzei jarraikiko zaie.

Bilketa instalaziorik ez dagoen edo behar baino instalazio gutxiago dauden eremuetan, urbanizazio proiektua sustatzen duenak bere kontura eta fondo galdura ordainduko du instalazioen handitze edo aldatzea, zerbitzu eskaera berriari harrera egiteko beharrezkoa baldin bada. Eginen diren instalazioen ezaugarriak (aire zabaleko edukiontziak, lurrarazpikoak etab.) Udalaren hirigintza arauetan agertzen direnak izanen dira edo, bertzenaz, urbanizazio proiektuaren edo obra lizentziaren gainean egin txostenean Mankomunitateak berak adieraziak.

Instalazioa handitu edo instalazio berria paratzen denean, enpresa zerbitzu emaileak finkatuko ditu baldintza teknikoak eta, obrak egiten direnean, kontrolatuko du betetzen ote diren.

Instalazio hori enpresa zerbitzu emaileak nahi bezala bukatu ondoren, berriazko edo esan gabeko harrera egin eta Udalaren ondasun publiko bihurtuko da instalazioa.

4. Edukiontziak jabetza publikoko elementuak direnez gero, Mankomunitateko zerbitzuek berriutuko dituzte. Erabilera okerragatik zerbitzurako erabili ezinak suertatu direnetan, erabiltzaileari ordaindu beharra ezarri ahal izanen zaio.

5. Edukiontziak aldiari behin garbituko dira.

6. Mankomunitateak hiri eremuan pasabideak eta erreserba bereziak paratzeko eskatu ahal izanen du, zama-lanetarako eta edukiontziak era egokian mantentzeko gainerakoak egiteko.

Horrez gain, hondakinen ekoizpen handiko jarduerak direnean –arrandegiak, supermerkatuak, elikadura industriak etab...– eta haien azalera eraikia 200 m² baino handiagoa denean, toki itxiren bat izan beharko dute, behar bezala aireztatua, zaborrak edukiontzietan gordetzeko, eta

hortik kanpora aterako dituzte ordenantza honetan zehazten dituen toki eta orduetan.

7. Mankomunitateko kide diren udalek, beren udal ordenantzetan, zehaztuko dute edukiontzien aitzinean, hura bildu eta hustea eragozteko maneran, ibilgailurik aparkatzeko debekua; horretarako behar diren seinale etzanak erabiliko dituzte komenigarria iruditzen bazaie, eta haien gain egonen da hura zehazteko ahalmena, trafikoko arau-hauste bat gehiago bezala.

8. Mankomunitatean sarturiko udalek, alde bakarretik erabakitzen ahal dute lurpeko edukiontziak paratzea bere lurralde eremuko halako toki batzuetan, betiere instalazio hori bateragarria bada Mankomunitateak une bakoitzean hautatu duen bilketa zerbitzu arruntarekin. Halakoetan, baldintza hauek bete behar ditu:

–Obrako inbertsioa eta hautatutako sistema paratzea udal eskatzailaren kontura izanen da.

–Bilketa tokiak eta instalazioaren ezaugarriak zein diren erabakitzeko beharrezkoa izanen da Mankomunitateko zerbitzu teknikoaren oniritzia.

–Instalazioa irekitzeko sistema, bai eskuzkoa (giltza) bai automatikoa (urrutiko kontrola) Mankomunitateko zerbitzu teknikoek onartu behar dute.

–Lurpeko bilketa toki bakoitzean paratu beharreko edukitzaileen guti-eneko kopurua eta haiek biltzeko maiztasuna Mankomunitateko zerbitzu teknikoek erabakiko dituzte.

–Bilketa tokiak garbitzea eta mantentzea Udalaren lana izanen da. Mankomunitateak izanen du gainerakoetan bezala, instalazioan kokaturik dauden edukiontziak garbitu eta mantentzeko ardura.

–Hondakinen gordailuen ahoak Mankomunitateko zerbitzu teknikoek zehazten dituzten kolore eta ezaugarriekin identifikatu beharko dira.

–Bilketaren kostu gehigarria, zama-lanetan denbora gehiago erabiltzeagatik, Mankomunitateari ordaindu beharko dio udal interesdunak.

–Kostu gehigarri hori kasu bakoitzean zehaztuko da, urte bakoitzeko, ondoko formularen arabera, lurpeko bilketa toki bakoitzerako:

• $KI^* (Fb + Fh + Fu)$.

• KI kostuaren indizea da, Mankomunitatearen ordenantza fiskalen barnean urtero finkatuko dena.

• F asteko bilketa kopurua da eta azpi-indizeak (b, h eta u) edukiontzi motaren aipu egiten du (berdea, horia edo urdina).

–Sistemaren akatsen ondorioz ez bada egiten ahal hiri hondakinen bilketa, Udalak ahalik eta denbora laburrenean zuzendu beharko du sistema eta, bitartean, behar diren baliabideak jarri zerbitzu egoki bat bermatzeko.

–Kasuan kasuko udalak bilketa tokia handitzeko konpromisoa hartu beharko du, askiez bilakatu bada saltoki berriak irekitzeagatik edo bertze edozein arrazoiengatik.

–Hautatutako instalazioek jaso beharko dute bilketa tokian egin litekeen egokitzapena bilketa sistema berrietara (konparaziorako, alboko bilketa).

13. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

–Erabiltzaileak, aitzineko artikuluan ezarritakoez gain, betebeharrak izanen ditu:

1. Mankomunitateak kasu bakoitzean zehazten dituen edukiontziak erabiltzea, indarra duen legezko araudiari jarraikiz.

2. Erabiltzaileek haien barnean sartu beharko dituzte zaborrak, ezarritako arau eta ordutegien arabera, eta debeku izanen da hondakinak abandonatzea edukiontziak paratzeko eremuen inguruan.

3. Erabiltzaile nahiz zabor biltzaileek arreta handiz erabiliko dituzte zaborrontziak, kalterik jasan ez dezaten.

4. Herriarrak ahaileginduko dira zama-lanak, garraio eta edukiontzien garbiketa lanak ez eragoztera.

5. Debeku da zaborren handizkako hustuketa edukiontzietara. Erabiltzaileak, partikularra izan edo saltoki tikioa izan, bere hondakinak poltsa hermetiko arras itxietan sartu behar ditu, deus ez zikintzeko.

6. Erabiltzaileak ez du haizu edukiontziak eremu publikoan duten tokitik mugitzea, aitzakia edozein dela. Ez hark bertze toki bat nahiago izateagatik, ez hondakinak errazago bota nahi izateagatik, erosokeriak bultzatuta, edukiontziraino eramane beharrean.

7. Edukiontzietara ez dira inola ere botatzen ahaliko eduki likido handia duten hondakinak, edo bertze edozein hondakin mota baldin eta, bota ondoan, edukiontzien pisuak 150 kg baino gehiago egiten badu.

8. Mankomunitateak behartzen ahaliko ditu hirigunean kokaturiko saltoki eta industriak, udalerriko eremu publikoetan kokaturiko edukiontziak erabiltzen ohi dituztenak, beren usaina edo osaketa dela-eta auzoendako hondakin gogaikarriak ekoizten badituzte (arrandegiak, konparaziorako), udalerrietako aldirietan kokaturiko halako edukiontzi batzuk erabiltzera gutienez ere aipatu hondakinak botatzeko, traba horiek gerta ez daitezen; edukiontziak behar bezala seinaltatuak egonen

dira. Betebehar hori ez betetzea idatziz jakinaraziko da eta dagokion zehapena ekarriko du.

9. Zaborrak uzteko ordutegia izanen da 19:00etatik 23:00etara, bilketa gauaz egiten duten udalerrietan, eta 19:00etatik hurrengo goizeko 6:00etara, bilketa egunez egiten duten udalerrietan; ordutegi horretatik kanpora debeku da hondakinak uztea, herritarrek usain txarrik eta trabarik izan ez dezaten.

Kasu partikular batzuetan, gehienetan saltokietan, irekitzeko eta ixteko ordutegiak bat egiten ez badu aipatu berri denarekin, hondakinak eremu publikoan bildu gabe geldi ez daitezen, eskaera arrazoitua egingen diote Mankomunitate honi, zaborrak ordutegitik kanpora ateratzea galarazten dieten arrazoiak agerturik. Mankomunitateak erantzuna emanen dio eskaerari, eta berak erabakiko du zer egin kasu bakoitzean.

10. Sortutako hiri hondakin solidoak ez zaizkio inola ere emanen udalerrietako kale garbiketa egiten duten behaginei.

11. Produktu geldoak gaikako bilketako beren edukiontzietan utzi behar dira, III. kapitulaz zehazten denaren arabera.

Geldoak dira deskonposizio azkarra izaten ez dutenak, hala nola beira, paperak, kartoiak, plastikoak, bildukiak, brickak eta metalak.

12. Debeku da pilak eta bateriak edukiontzi berdeetan edo gaikako bilketakoetan uztea; saltzen dituzten saltoki guztietan dauden edukiontzi berezietan utzi behar dira.

Erriberako Mankomunitateak zehapena ezarriko die bere jokabidea dela medio edukiontziak jaso edo bere lekuan paratzeko zerbitzua eragozten dutenei.

III. KAPITULUA

Zaborren gaikako bilketa

1. ATALA

Ohar orokorrak

14. artikulua. Helburuak.

Bai Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko 22/2011 Legeak prebentzioa, berrerabilpena, birziklatzea eta hondakinak balorizatzea bertzeko modu batzuk dituzte helburu, horiek denak ingurumena eta jendearen osasuna zaintzeko. Halaber, bertzeko helburu batzuk dira hondakinak aprobetxatzea eta baliabide energetikoen eta lehengaien optimizazioa.

15. artikulua. Bilketa ereduak.

Aitzineko artikuluen ondorioetarako, Mankomunitatearen esparruan bilketa arrunterako ezarritako ereduak behartzen ditu erabiltzaileak beren hondakinak lau zatitan aurkezteara:

1. Materia organikoa eta gainerakoa.
2. Ontziak.
3. Papera-kartoiak.
4. Beira.

Orobat behartzen ditu bakoitzerako edukiontzi berariazkoetan uztera; horiek uen hauetan halako forma, tamaina eta kolore batekoak dira, baina etorkizunean alda litezke bertzeko bilketa sistema batzuk ezartzearen ondorioz (hala nola alboko kargakoa); nolahi ere mantenduko dute bakoitzean bota beharreko hondakin motaren berri ematen duen errotulazio argia.

Bilketa eredu honek erabiltzaileen betebeharra dakar aprobetxamendu desberdinak izan ditzaketen hondakinak edo bilketa berariazkoa komeni dutenak bereizirik edo ontzi berezietan sarturik aurkezteko.

Gaikako bilketako edukiontzietan ez da inola ere hondakinik botako bakoitzerako berariaz seinalatu direnak ez badira.

Orobat, Mankomunitateak atez ateko bilketa ezar dezake produktu desberdinetarako, adierazten baditu bilketaren maiztasuna, ordutegia eta ezaugarriak, hala nola papera, trpuak etab.

16. artikulua. Materia organikoko eta gainerako hondakinaren bilketa edukiontzietan.

Gainerako sail horretan sartzen dira hondakinatariko batzuk, materia organikoa izan gabe bilketa berezian sartzen ez direnak ezta edukiontzi berariazkoetan sartu behar ez direnak.

Materia organikoko eta gainerako hondakinaren sailekoak horretarako diren edukiontzietan sartuko dira, alegia, "materia organikoa eta gainerakoa" edo "bakarrik gainerakoa" idazkuna dutenetan. Una hauetan haien edukiera 1.000 litro da; gibelego karga dute eta kolore berde iluna, tapakia irekia dutela; bertzeko sistema bat (alboko karga) ezarrit gero bertzeko eredu eta kolore batekoak para litezke haien ordez.

Aitzineko hautaturiko sortzaileendako Mankomunitateak beharkizuna ezartzen ahalko du materia organikoa bereizteko eta sail horretarako edukiontzi berariazkoetan sartzeko.

Hondakin organikoen eta gainerakoen edukiontzietan uzten diren hondakin guztiak poltsa arrunt ongi itxietan sartu beharko dira, eror ez daitezen eta edukiontzia edo eremu publikoa zikin ez daitezen.

Debeku da poltsak edo kuboak herrestan eramatea. Hondakinak gaizki aurkezteagatik horiek kanpora erortzen badira, erabiltzaile eragilea izanen da sortutako zikinkeria erantzulea.

Mankomunitateak baldintza bereziak ezartzen ahalko ditu, hala nola edukiontzietan poltsa paratzea, sortzen diren hondakinaren kopurua edo motaren kariaz neurri bereziak komenigarria baldin badira zerbitzu teknikoan iritziz.

17. artikulua. Hondakinaren jabetza.

Hondakinei buruzko 22/2011 Legeari jarraikiz, Erriberako Mankomunitateak hondakin hauen jabetza hartuko du, hiri hondakin solidoak izateagatik, biltzeko uzten diren momentutik, eta zehatuko du hondakin horiek manipulatzeko edo ebasteen dituen.

18. artikulua. Hondakin birziklagarriak ekoizten dituzten enpresak.

Hondakin birziklagarriak ekoizten dituzten enpresa edo industrietan, haien bolumena 9. artikuluen B ataleko 1-d puntuak ezartzen duena baino handiagoa bada, bereizirik eta beren kabuz eraman beharko dituzte El Culebreteko hondakindegiko birziklatzeko instalazioetara edo, bertzenez, alta eman erabilera eskusiboko edukiontziei, 29. artikulua ezartzen duen bezalaxe.

Ordenantza fiskalak tasa desberdinak ezarriko ditu, hondakin horiek nola aurkezten diren, bereizirik edo beren artean edo hondakin birziklaezinekin nahasirik, baita gaikako bilketarako edukiontzi eskusiboen bilketarako ere.

2. ATALA

Beiraren gaikako bilketa

19. artikulua. Edukiontzien eta bilketaren ezaugarriak.

Mankomunitateak prestatuak ditu edukiontzi berariazkoak beiraren gaikako bilketarako; kolore berdea dute eta iglu forma, eta 3 eta 4 m³-ko edukiera; orobat, baditu 1.000 litroko edukiontziak, organikoko eta gainerako hondakinendako edukiontziak bezalatsukoak, tapa itxia eta barnera botatzeko bi zulo dituztenak, behar bezala errotulatuak; horien ordez bertzeko mota eta kolore batekoak para daitezke, bertzeko sistema bat paratzen bada.

Edukiontzi horietara beirazko ontzi mota guztiak baizik ez dira botako, kolorea bereizi gabe, poltsarik batere gabe, tapoirik gabe eta huts-hutsik likido eta produktu guztiez.

Edukiontzi horiek sartzeko aho bat izaten ahalko dute, beirazko ontziak barnera botatzera utzi baina bertzeko edozein hondakin mota sartzeko eragotziko duena, horrek edukiontziko edukia alferrik galtzea ekarriko bailuke utzitako materiala birziklatzeko, hori izanik gaikako bilketa guztiaren xedea.

Beiraren edukiontziak biltzeko maiztasuna tikia denez, herritar batek horietariko bat beterik ikusten badu, biltzeko gatzigua egiten ahal du, Mankomunitatearen bulegoetara deituz.

3. ATALA

Paperaren eta kartoiaren gaikako bilketa

20. artikulua. Edukiontzien eta bilketaren ezaugarriak.

Mankomunitateak prestatuak ditu edukiontzi berariazkoak paperaren eta kartoiaren gaikako bilketarako; bilketa arrunteko edukiontziak bezalatsukoak dira, baina kolore urdinekoak, eta tapa itxia eta 1.000 litroko edukiera dute, eta behar bezala errotulatuak daude, honela: "papera eta kartoiak"; horien ordez bertzeko mota eta kolore batekoak para daitezke, bertzeko sistema bat paratzen bada, hala nola alboko kargakoa.

Edukiontzi horietan mota guztietako papera eta kartoiak baizik ez da botako, bertzelako produkturik ez duena, hala nola ezkoak, plastikoak edo aluminioa, ezta brickeko ontziak ere, ez baitira bertan botatzen ahal.

Kartoiak kaxak behar bezala tolestuak edo zatikatuak bota beharko dira, edukiontzietan barnean gehiegizko bolumena harrapa ez dezaten, ahal dela saihesturik kartoiak kaxak edukiontzietatik kanpora uztea, haizeak herrestan eramaten ahal baititu eta karriketan barna barreiatu.

Beren tamainaren kariaz kaxak ez badira edukiontzietan barnean sartzen ahal, tolestu beharko dira eta ahal baldin bada lotu, edo gutienez ere edukiontzien artean tolesturik sartu, barreia ez daitezen.

Edukiontzi horiek sartzeko aho laukizuzena dute, gutienez ere 15 bider 60 cm-koa; horrek papera eta kartoiak barnera botatzera uzten du, baina galarazten, hein batean bederen, barnera botatzea edozein hondakin mota edukiontzietan edukia utzitako materiala birziklatzeko alferrik galaraziko lukeena edo beharrezkoa egingen lukeena gero garbitze tratamendua.

Saltoki batzuek, kartoi kopuru handia sortzeagatik, gaitz baldin badute hori egunero edukiontziairen barnean botatzea, dohainik eskatzen ahalko dio Mankomunitateari edukiontziairen tapakia irekitzeko giltza, aiseago botatzeko.

4. ATALA

Ontzi arinen gaikako bilketa

21. artikulua. Edukiontzien eta bilketaren ezaugarriak.

Mankomunitateak prestatuak ditu edukiontzi berariazkoak ontzi arinen gaikako bilketarako; bilketa arrunteko edukiontziak bezalatsukoak dira, baina kolore horikoak, eta tapa itxia eta 1.000 litroko edukiera dute, eta behar bezala errotulatuak daude, honela: "plastikoak, latak eta brickak"; horien ordeztu bertzeta mota eta kolore batekoak para daitezke, bertzeta sistema bat paratzen bada, hala nola alboko kargakoa.

Edukiontzi horietan edozein ontzi baizik ez da botako, paperezkoa eta kartoizkoa edo beriazkoa ez bada, erran nahi baita: plastikozko ontziak, metalezko latak eta brickak edo etorkizunean izendatzen diren bertzeta mota batzuetakoak.

Edukiontzi horietan gauzak barnera botatzeko ahoa biribila da. 25 cm inguruko diametrokoa; horrek ontziak barnera botatzera uzten du, baina galarazten, hein batean bederen, barnera botatzea edozein hondakin mota edukiontziairen edukia utzitako materiala birziklatzeko alferrik galaraziko lukeena edo beharrezkoa egingen lukeena gero garbitze tratamendua.

IV. KAPITULUA

Zaborretarako instalazio finkoak erabiltzea

22. artikulua. Debekuak.

Debeku da hondakin solidoak estolderia sarera botatzea.

23. artikulua. Instalazioak.

Erriberako Mankomunitatearen zerbitzuek aldeztu aurretik emandako baimena beharko da etxeko erraustegiak edo zaborren dentsitatea handiagotzeko instalazioak paratzeko.

V. KAPITULUA

Hiri-hondakin solidoen bilketa bereziak

1. ATALA

Ezaugarri orokorrak

24. artikulua. Kontzeptua.

9. artikulua B letran definitu diren hondakinen bilketa, hondakinen bilketa berezizat hartzen da. Horiatarako, Erriberako Mankomunitateak bilketa zerbitzu bereziak ezarriko ditu edo, bertzeta, erabiltzaileek nola egin behar duten erranen.

Erabilera eskusiboko edukiontzien bidez emanen ohi da zerbitzu hau. Zerbitzua egiteko modu honen erabiltzaileek edukiontziak zaindu eta mantentzeko ardura izanen dute eta orobat erantzunen dute berei edo hirugarrenei egiten dieten kalteez. Edukiontzi horiek ekoizlearen jabe goan gordeko ohi dira. Salbuespenaz eremu publikoan paratzen ahalko dira, dagokion udalaren baimen espresua edo isilekoa izanez gero. Orobat, ekoizleari dagokio edukiontziak zerbitzuaren eskura jartzea ohiko bilketa orduetan eta hortik kentzea hura amaitutakoan.

Bilketa berezi horiek edukiontzi trinkotzaileak, kaxak edo zerbitzu honi egokitutako bertzeta sistema berariazkoak erabiliz egiten ahalko dira.

Inolaz ere ezin izanen dira bildu arautegi orokorrak hondakin arrisku-tsutzat hartzen dituenak, edo kudeatzaile baimendu baten aldeztu aurretiko tratamendua behar dutenak, salbu eta Mankomunitateari horretarako gaitasuna ematen bazaio.

2. ATALA

Hondakin arriskutsuak

25. artikulua. Hondakin arriskutsuen aurreziatzeko tratamendua.

Hondakin Solidoen buruzko 22/2011 Legeak ezarritakoaren arabera, Erriberako Mankomunitateak hondakin motaren bat arriskutsua dela uste duenean, edo haren ezaugarriek zail egiten badute haren kudeaketa, hura sortzen duenari edo haren jabe denari eska diezaiotke, biltzeari ekin baino lehen, beharrezkoa den tratamendua egin dezan, hondakina arriskutsu bihurtzen duen zera kentzeko, edo pertsonendako, gauzendako edo ingurumenarendako arriskutsu izan gabe bildu, garraiatu, tratatu edo deuseztatzeko maneran uzteko eralda dezan.

26. artikulua. Hondakin arriskutsuak.

Ordenantza honetatik kanpora gelditzeari dagokionez, hondakin arriskutsuak dira Batzordearen maiatzaren 3ko 2000/532/CE erabakian ezarritako zerrendan sarturik dauden guztiak, 952/1997 Errege Dekretuak onetsi baitzuen, baita horiek eduki dituzten ontziak ere, europar araudiak arriskutsutzat hartzen dituenak eta Gobernuak etorkizunean onesten dituenak, Hondakinei buruzko 22/2011 Legean xedatu bezala.

27. artikulua. Informazioa.

Aitzineko artikulua dioena bermatu beharrez, aitzineko artikuluetan zehaztutako hondakinak sortu, manipulatu edo garraiatzen dituzten ekoizle, edukitzaile eta hirugarren baimenduak beharturik daude hondakinen jatorriari, izaerari, osaketari, ezaugarriari, kopuruari, hustuketa motari, aurre-tratamendu sistemari eta behin betiko tratamenduari buruzko informazioa ematera Erriberako Mankomunitateari.

3. ATALA

Industriako eta merkataritzako hondakinak bildu, garraiatu eta botatzea

28. artikulua. Egiten ahal diren zerbitzuak.

Erriberako Mankomunitateak, industriako edo merkataritzako hondakinen ekoizle edo edukitzaileak biltzeko eskaera egin ondoren, erabakiko du hura egin daitekeen erabilera eskusiboko edukiontzien bitartez, 29. artikulua dioen bezala, hondakin horien kopuru eta baldintzen arabera, edo eskatzaileari baimena ematen dion dagokion tratamendu zentroan uzteko, kasu bakoitzerako tasa egokiak ezarri.

Mankomunitatearen lurralde esparruan dauden industria edo saltoki guztiek edo, egon gabe ere, haren barnean hondakinak ekoizten dituztenek, bota ahal izanen dituzte beren hondakinak El Culebreteko eskualdeko hondakindegian, beren kabuz garraiatzen badituzte eta betiere horiek arriskutsuak ez badira; horretarako, botatzeko baimena eskatu beharko da aitzinetik, eta hura eraman beharko dute hondakinak botatzera joaten diren aldiro.

Orobat eskatzen ahalko dute Nafarroako bertzeta udalerri batzuetako industriet edo saltokiek beren mankomunitateak hondakindegirik ez badu baldintza beretan.

Mankomunitateetik eta Foru Komunitateetik kanpoko enpresek ere eskatzen ahalko dute delako baimena; halakoetan, hondakinak onartzen ahal direla erabaki ondoan, onartzeko baimena eskatuko zaio Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentuari; interesdunak arrazoiz jantzi beharko du bere eskaria.

Bota beharreko hondakinen konposizioaz dudarik bada, laborategi ofizial batek analisia egiteko eskatzen ahalko da eta hura Nafarroako Gobernuak Ingurumen Departamentu igorri, hondakinak onartzeko edo ez onartzeko.

Hondakindegian hondakinen tratamenduaz arduratzen diren langileek betiere ikuskatu beharko dituzte industriet edo saltokiek bota nahi dituzten hondakinak.

Mankomunitateak behartzen ahalko du interesduna hondakinak bere kabuz botatzera edo, bertzeta, alta ematera erabilera eskusiboko edukiontziei, 29. artikulua ezartzen dituen baldintza eta kasuetan.

29. artikulua. Erabilera eskusiboko edukiontziak.

Etxebizitza partikularrak ez diren erabiltzaileei, erran nahi baita, saltokiei, elkartei, industriei eta abarri, bilketa zerbitzua egiten ahalko zaie erabilera eskusiboko edukiontziak erabiliz, honako kasu hauetan:

1. Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek egiaztatzen badute egunean 50 litro baino hondakin bolumen handiagoa ekoizten dutela, 9. artikulua B atalaren 1-d puntuak aipatu bezala, bai hondakin arruntetan bai hondakin birziklagarrietan: papera-kartoia eta ontzi arinak (plastikoak, latak eta brickak).

2. Aitzineko kasua gertatzen ez bada ere, hondakinen ezaugarrien ondorioz, Mankomunitatearen zerbitzu teknikoek iritziz, erabilera eskusiboko edukiontzi bat erabiltzea komenigarria denean. Horiek izan daitezke: likido kopuru handiegia, usain txarrak, dentsitate handia etab.

3. Isolamendua hain handia izanik, bertzeta inongo erabiltzailek erabiltzen ahal ez duenean hondakin arruntak edukiontziak.

Mankomunitateak hornituko ditu, zuzenean, edukiontzi hauetaz.

Haien mantentzea edo, deusetarako ez dela gelditzen badira, berriak jartzea, Mankomunitatearen bizkar izanen da.

Edukiontziairen kalteak erabiltzaileek gaizki erabiltzeren ondorio direla frogatzen bada, fakturatuko zaizkie konpontzeko edo, deusetarako ez dela gelditzen bada, berriak jartzeko kostuak.

Egunez, erabiltzaileak komeni zaion tokian kokatuko du edukiontziak, lekuz aldatzen ahal bada, bere jabe goaren barnean, eta eremu publikora atera beharko du, zaborra eraman dezaten, 23:00ak baino lehenago, zerbitzua egiten den egunetan bakarrik, eta hortik kentzen ahalko du

behin hustu ondoan. Lekuz aldatzen ahal ez bada, edukiontzia eremu publikoan kokatuko da.

Mankomunitatearen zerbitzuek erabilera eskusiboko edukiontzia bil ditzaten, bertan alta eman beharko zaie, behar den bilketa kontratua eginda; bertan zehaztuko da zenbat edukiontzi mota bakoitzeko eta astean zenbat egunetan nahi den bilketa.

Bilketa astean zenbat egunetan egingen den erabakita, Mankomunitateak finkatuko du zehatz-mehatz asteko zein egunetan egingen den.

Horrez landa, edukiontzi eskusiboa izan behar duten erabiltzaileek badute beren hondakinak beren kabuz eramateko aukera El Culebreteko eskualdeko hondakindegira, Tuter-Fitero errepidean baitago 11 kilometroan, Mankomunitateari zaborrak botatzeko behar den baimena eskatu ondoan.

Mankomunitateak behartzen ahalko ditu edukiontzi eskusiboak biltzeko kontratuan titular diren saltoki eta industriak horiei baja ematera eta beren hondakinak hondakindegira beren kabuz eramatera, zaborrak botatzeko behar den baimena emanda, baldin eta Mankomunitateak uste badu hondakin horiek edozein arazo sor dezaketela bilketa zerbitzuen funtzionamendu egokian edo gero ematen zaien tratamenduan Mankomunitateak horretarako jartzen dituen plantetan.

Edukiontzi eskusiboren bati alta ematen dioten erabiltzaileei, edo beren hondakinak hondakindegira beren kabuz eramaten dituztenei, baja emanen zaie zaborren tasei dagokienez, azken kasu honetan, betiere Mankomunitatearen iritziz, ez badute inolako aukerarik erabilera publikoko edukiontzirik hurbil erabiltzeko.

4. ATALA

Hondakin klinikoen bilketa eta garraioa

30. artikulua. Bilketa, garraioa eta tratamendua.

Irailaren 13ko 296/1993 Foru Dekretura egokituko da hondakin klinikoen bilketari eta garraioari eta orobat tratamenduari dagokion guztia, haiei buruz ari baita.

Mankomunitateko zerbitzuak arduratuko dira dekretu horren 1 eta 2. multzoetan sailkaturiko hondakinen bilketaz eta tratamenduaz, eta soilik tratamenduaz 3. multzoko hondakinei dagokienez, behin horiek geldotu direnean dekretuan deskribatzen diren sistemetakoren bat erabiliz.

5. ATALA

Animalia hilak bilketa eta garraioa

31. artikulua. Debekuak.

Debeku da animalia hilak abandonatzea, edozein motatakoak direla ere eta edozein lur motatan dela ere, bai eta horiek hiri hondakinen edukiontzietan uztea edo jabetza publikoko lurretan ehorztea ere.

32. artikulua. Egiten diren zerbitzuak.

Etxeko animalia hilak gainetik kendu nahi dituenak bere kabuz egingen du (sektoreko enpresen edo albaitaritzako kliniken bidez) edo Nafarroako Gobernuak horretarako baimendu dituen kudeatzaileen bitartez.

6. ATALA

Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak (EEH) –lurrak eta obra-hondakinak– biltzea, garraiatzea eta botatzea

33. artikulua. Aplikazio eremua.

Ordenantza honi dagokionez, EEH –lurrak eta obra-hondakinak– dira ondotik ematen diren hondar materialak, halakotzat jotzen baitituzte Hondakinak Hondakindegietan Bilduz Deuseztatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuak eta Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legeak. Hondakin geldotzat hartuak.

1. Indusketak egin eta gero ateratzen diren lur, harri eta gisakoak.

2. Eraikuntza, eraispenei eta eraispene lanetatik ateratako hondakinak eta, oro har, obra handi eta tikietaiko soberakinak.

34. artikulua. EEHen bilketa eta tratamendua.

Beren ekoizleek egin behar dute EEHen bilketa eta tratamendua, Nafarroako Gobernuak material horietarako baimendu dituen kudeatzaileen bitartez.

35. artikulua. Mankomunitateak egin beharreko zerbitzuak.

Mankomunitateko zerbitzuek edukiontzi berariazkoak paratzen ahalko dituzte, kide diren udalerrietako aldirietan, bolumen tikiko etxeko obretatik etortzen diren hondakinendako.

Edukiontzi horietan 33. artikulua EEHtzat jotzen dituen hondakinak baizik ez dira botako, gehienez ere 1 m³ egunean.

Debeku da arras EEHak botatzea edukiontzi horietatik kanpora, eta beterik badaude erabiltzaileak EEHen kudeatzaile baimendu baten eskutan utzi beharko ditu; hala egiten ez bada, zehapen ahalmena erabiliko da.

Mankomunitateko zerbitzuek edukiontzi horiek aldian behin eramanez dituzte, eta tratamendua emanen zaie kudeatzaile baimenduen bitartez.

7. ATALA

Altzari, etxe tresna eta traste zaharren bilketa

36. artikulua. Bilketa bereziaren zerbitzua.

Mankomunitateak, bere jarduketa esparruan, bilketa zerbitzu berezia du, aitzinetik gaztigu eginda, altzari mota guztiak (desmuntatuak eta biltzeko prestatuak), etxeko tresnak eta traste zaharrak eramateko, salbu eta higiarazteko bitarteko mekanikoen erabilpena behar dutenak, hala nola garbiak, poleak, etab.

Debeku da altzariak, tresnak eta traste zaharrak eremu publikoan abandonatzea, baita edukiontzietan sartzea edo haien ondoan uztea ere.

Zerbitzu hori partikularren etxeetan baizik ez da egingen, baina Mankomunitateak oniritzia ematen badu, ente eta erakunde publiko eta pribatuak ere egin liteke, irabazi asmorik ez badute eta baliabiderik ez badute gauzak hondakindegira berek eramateko.

Zerbitzu hau erabili nahi duten bizilagunek Mankomunitateari eskatuko diote hark laguntzarako ezarrita dauzkan telefonoetara deituta; gisa horretara, bilketa zehaztuko dute zerbitzuaren programazioaren arabera.

8. ATALA

Puntu garbiak

37. artikulua. Ezaugarriak.

Orain Mankomunitatea bi puntu garbi ditu, bat, finkoa, El Culebreteko tratamendu zentroan, eta bertze bat, mugikorra, horretarako egokituriko kamioi baten bidez, udalerri kide guztietan barna higitzen dena programaturiko ordu eta lekuen arabera; horiez aparte, etorkizunean behar direnak antola litezke zerbitzuaren funtzionamendua hobea izan dadin.

38. artikulua. Erabiltzaileak.

Puntu garbiak Mankomunitateko bizilagunek erabiltzekoak dira, ez enpresek edo industriek, eta horietan utz daitezke etxean sortutako hondakin arriskutsuak, etxeko etorkia duten bertze hondakin batzuek landa.

39. artikulua. Puntu garbian biltzeko hondakinak.

Hona hemen puntu garbietan utz daitezkeen hondakinak: landare olioak, olio minerala, aerosolak, azido-baseak, kloro-merkurioa, produktu kimikoak, ezkoak, gantzak eta erregaia, cd-ak, dvd-ak, disolbatzaileak, izotz-kontrakoak, balazta-likidoak, etxetresna elektrikoak eta elektronikoak (AEEHak), etxeko ontziak eta kutsatuak, automozioak olioaren iragazkiak, fitosanitarioak, fluoreszenteak, argazkigintzako likidoak, botikak, erradiografiak eta xiringak, pilak, bateriak (elektrokoak eta autoetakoak), mugikorrak, pinturak (lakak, bernizak, itsasgarriak), garbitzeko produktuak, arropa, zapatak eta ehunak, tonerra, inprimatzeko tintak eta zintak, traste handiak.

Mankomunitateak kudeatuko ditu puntu garbietan utzitako hondakin arriskutsuak, kudeatzaile baimenduen bidez.

9. ATALA

Pila eta baterien bilketa

40. artikulua. Ezaugarriak.

Mankomunitateak pilak biltzeko zerbitzua du, establezimendu laguntzaileetan paraturiko edukiontzien bidez, eta horrekin bat egiten ahalko dute eskatzen duten guztiak; horrez gain, edukiontzi bereziak ditu, behar bezala errotulatuak eta ezagutzeko modukoak, eremu publikoetan kokatuak.

Edukiontzi horietan pila eta bateria mota guztiak utz daitezke, baita patrikako telefono baztertuak ere.

10. ATALA

Arroparen eta zapaten bilketa

41. artikulua. Ezaugarriak.

Mankomunitateak arropa eta zapatak biltzeko zerbitzua du, edukiontzi egokien bidez; horiek, behar bezala errotulatuak eta ezagutzeko modukoak, eremu publikoetan kokatuak daude.

11. ATALA

Landare olioaren bilketa

42. artikulua. Ezaugarriak.

Mankomunitateak landare olioak biltzeko zerbitzua du, horretarako homologaturiko edukiontzien bidez; horiek, behar bezala errotulatuak eta ezagutzeko modukoak, eremu publikoetan kokatuak daude; bildu

ondoan kudeatzaile baimendu baten eskutan uzten da, tratamendua eman diezaion.

Erabiltzaileek horietan sartu beharko du olio erabilia, botiletan edo pote ongi itxietan; horiek, ahal dela, plastikozkoak izanen dira.

III. TITULUA

Hondakinen tratamendua

43. artikulua. Baldintza orokorrak.

El Culebreteko hondakinak tratatzeko zentroan utzi beharreko hondakinak sortu, manipulatu edo garraiatzen dituzten ekoizle, edukitzaile eta hirugarren baimenduak beharturik daude hondakinen jatorriari, izaerari, osaketari, ezaugarriari, kopuruari, hustuketa motari, aurretratamendu sistemari eta behin betiko tratamenduari buruzko informazioa ematera Erriberako Mankomunitateari. Eta orobat beharturik daude haien garraioa egiteko baldintzak, modua eta manera izatea ezarriak daudenak edo ezartzen direnak, eskatuak direnak edo eskatzen direnak.

44. artikulua. Garraioaren baldintzak.

Ondotik ematen diren modu eta baldintzetan egingen da El Culebreteko hondakinak tratatzeko zentroan utzi beharreko hondakinen garraioa:

a) Garraioa, kaxa irekia duen ibilgailuan. Karga guztia estaltzeko toldoa, sarea edo maila erabiliko da, hondakinik eror ez dadin eremu publikora.

b) Garraioa kaxadun ibilgailuan, trinkotuz edo trinkotu gabe. Egin beharko da atear behar bezala hetsirik daudela; kargatzeko ahoa ez da kaxatik atera beharko eta estalirik edo itxirik egonen da, horretarako atea, toldoa, sarea edo maila erabilia, hondakinik inola ere eror ez dadin eremu publikora.

c) Garraioa, trinkotzeko kaxa duen ibilgailuan. Egin beharko da atear behar bezala hetsirik daudela, eta kaxa hustutzeko prestaturiko posizioan; kargatzeko ahoa egonen da hondakinez arrunt garbi, edo hartan hondakinik badago estalirik edo itxirik egonen da, horretarako atea, toldoa, sarea edo maila erabilia, hondakinik inola ere eror ez dadin eremu publikora.

